



ARGIA

Yayo Herrero

Ekofeminista

Krisiaren aurrean, eguneroko utopiak

16-20. orrialdeak

2.788 | 2022 / 07 / 24 | 4,00 €



**Bost mendeko
kolonialismoan
hamaika borroka**

26 | PUERTO RICO



**Rojavako iraultzak
hamar urte**

36 | KURDISTAN




**"Ironia arriskutsua
izan daiteke"**

32 | SANTI LEONÉ, IDAZLEA

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #276
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



KIROLA ETA
LARRIALDI KLIMATIKOA

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | HUMANITATEAREN
UNE GORENAK
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


AZALEKO ARGAZKIA: **DANI BLANCO**

Iritziak

- 21 | IKER IRAOLA
- 22 | JUNE FERNANDEZ
- 23 | AINHOA AZURMENDI
- 23 | EVA PEREZ-PONS
- 24 | MIKEL OTERO
- 25 | TXERRA RODRIGUEZ

Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
ELI GALLEGU
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO
BUKATU

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


AZADI PRESS

36 | ROJAVAKO IRAULTZAK 10 URTE

Kurdistango Langileen Alderdiko (PKK) koadro politikoa den Ronahi Kurdistanen gaztea elkarriketatu du Aitziber Beitiak. Nola eta zergatik sartu zen militantzian azaldu du, haien borroka "Mentalitate baten aurkakoa dela, mentalitate patriarkala," eta gakoa "nork bere buruaren kontrako borrokan sakontzea" dela "nortasun askea" lortzeko.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Elikagaien krisia gainditzeko, kaletarrei eman aukera ortu bana edukitzeko

Pello Zubiria

16 | PERTSONAIA | YAYO HERRERO

"Deshazkundera ez da proposamen politikoa, gure testuingurua da"

Danele Sarriugarte

26 | NAZIOARTEA | PUERTO RICO

Historiako koloniarik zaharrenaren oihua

Leire Artola

32 | KIROLA | IÑIGO LLOPIS

"Ilusio handiena Parisera joatea da"

Maddi Viana

44 | KULTURA | SANTI LEONE

"Erdi-sekretuak edo bazterrekoak diren testuak gustatzen zaizkit"

Gorka Bereziartua

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirgoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Maddi Viana, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Sorluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus

komunitatea@argia.eus

Telefona

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaina taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:


antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA


iametzta

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egileta aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.


OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



IBRAHIM DIALLO
Senegal

BIDASOA
12 marzo 2022

YA
KAD

2
COS

B

Normaltzat?

ARITZ LOIOLA / FOKU AXIER LOPEZ

“Joan den mendean Europako erregimen totalitarioei aurre egin zietenentzat klandestinoak izan ziren Europako barne-mugak, eta orain berriz Europar Batasuneko migrazio, ekonomia eta merkataritza politikak sufritzen dituztenentzat”. Mugak Zabalduz karabanako kideek diotena hala ez balitz, normaltzat hartu behar al genuke milaka kilometrotara jaio, hazi eta hezi den pertsona bat, familia eta lagunak atzean utzita, nola edo hala Afrika iparralde guztia zeharkatu, Marokoko eta Espainiako mugazain eta hesi hiltzaileen mehatxuari iskin egin, penintsula alderik alde ezkutuan ibili, eta azkenean, hemen, Euskal Herriko ibai batean itota hiltzea? 25 urte bete berria zen Abderraman Bas ginearra izan da azkena. Bederatzigarrena urtebetea. Irudian, karabanak Irundik ekin dio Alpeetara eramango duen bidea, EBren migrazio-politikak alda ditzaten eskatzeko.



YA
RAMOKO

29 urte
STA MARFIL

SIDASOA

12 marzo 2022

ABDOULAYE
KOULABALY

18 urte
GUINEA
CONAKRY

8 agosto
2021

Ziztadak, Euskal Herrira iritsi den arrisku berria

MADDI VIANA ZUBIMENDI

Jai giroan, norbait ziztatu eta horren bidez gorputzean droga sartzen diotela antzematen ari dira azken boladan. Biktimak mareatuta sentitu ohi dira eta batzuetan kontzientzia galtzera iristen dira. Halako zerbait jasan edo ikusiz gero nola jokatu jakiteko argibideak ematen ari dira.

Ezagutzera eman ziren lehen kasuak Erresuma Batuan izan ziren, 2021eko udazkenean ziztatu zituztela salatu zuen hainbat emakumek. BBCK adierazi zuen 2021eko urriaren 21ean Nottinghamshireko Polizia hamabost kasu ikertzen ari zela eta lehen salaketa urriaren 2an jaso zutela. Ziztatuak izandako pertsona gehienak emakume gazteak izan ziren, baina gizonak ere ziztatuak izan zirela ziurtatu zuen Poliziak.

Ondoren, Frantzia, Espainia eta Europako beste herrialde batzuetan salatu dituzte antzeko gertakariak. Ipar Euskal Herrira heldu zen lehenik, oraintxu Hego Euskal Herrira. Ipar Euskal Herrian maiatzean hasi ziren ziztada bidetako erasoak salatzen. EITBk adierazi duenez, Baionan jazotako beste 20 kasu ikertzen ari dira.

Uztailaren 9an lau gaztek salatu zuten ziztatuak izan zirela Sanferminetan. Lauak mareatuta sentitu ziren, botaka egin zuten eta bertigoak izan zituzten,

besteak beste. *El Mundok* adierazi duenez, Poliziak baztertu egin du helburua sexu jazarpena dela zioen hipotesia. Horretarako argudiatu dute ziztatu ostean inor ez zela saiatu gazteak lagunengandik urruntzen. Lagunekin egon ziren uneoro eta ez zuten sexu jazarpen ez antzekorik pairatu. Gazteetako batek ordea, mutil bakarrak, bere kreditu txartela ostu egin ziotela azaldu du. Uztailaren 12an beste lau salaketa egon dira, guztira zortzi salaketa izan dira Iruñeko festak hasi zirenetik.

Ziztatzen den substantzia ezezaguna da, baina estasi likidoa izan daitekeela uste dute

ZER DA ZIZTADEN KONTUA?

Ingelesezt *needle spiking* deituriko praktika da. Normalean jende multzoa eta festa giroa aprobetxatuz, biktimak despistaturik daudenean ziztatzen dituzte droga oraingoz ezezagun batekin. Ziztatzen den substantzia ezezaguna

da, baina estasi likidoa izan daitekeela uste dute, hainbat hedabidek adierazi duenez.

Estasi likidoa “bortxatzaileen droga” gisa ere ezagutzen da eta nerbio-sistema zentralaren depresore bat da. Depresorea izateaz gain, haluzinogenoa ere bada, eta oso mendekotasun psikologiko handia eragiten du Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren arabera. Kazeta.eus-ek Arrangoitzen ziztatu zuten gazte batekin hitz egin zuen eta haren arabera, estasi likidoa sartu ziotela esan zioten medikuek, baina ospitalean egindako azterketa toxikologikoetan ez zuten halakorik aurkitu.

ZIZTATUA IZANEZ GERO, NOLA JOKATU

EHZ festibala uztailaren lehen asteburuan ospatu zen. Festibala pertsona guztientzat espazio segurua izateari garrantzi handia ematen diote antolatzaileek. Eraso ezberdinen aurrean neurri ezberdinak hartuko zituztela adierazi zuten haien sare sozialetan eta festibalean bertan zabalduko orrietan. Tartean, ziztada bat jaso gero protokoloa zein zen azaldu zuten: “Gurutze Gorrira jo zuzenean, haiek hartuko dute zu artatzearen eta Eraso Kontrako Brigadarekin lotura egitearen ardura”.

BBC hedabideak ere jarraibide batzuk luzatu ditu, lagun bat ziztatua izan bada zer egin azaltzeko. Hauek dira aholkue-tako batzuk: biktima bakarrik ez uztea inolaz ere ez, biktimarekin hitz egitea kontzientzia galdu ez dezan, alkoholik edaten ez uztea (arazo larriagoa sortu dezake alkohola edateak edo gehiago edateak) eta biktimak okerrera egiten badu anbulantzia deitzea.

Beraz, garrantzizkoa da lagunekin egotea, ziztada bat sentitzen den momentuan lagunei komentatzea, gaizki sentitzen hasten den pertsonarekin geratu eta larrialdi zerbitzuetara deitzea, drogarik ez kontsumitzea (alkohola, kasu) eta ziztada jaso den taberna, diskoteka edo festako antolatzaileei gertatutakoaren berri ematea. ●



HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Italiara, Suitza eta Alemanian barrena



ARITZ GALARRAGA

Badirudi aurten ere ez dugula, Hawaii, Mumbai, bidaia handi horietarik bat egingo. Aurten ere, esan dut, inoiz egin izan bagenu bezala. Printzipio kontua da gainera, ahalik eta arinena nahiko genuke lurren gaineko gure pasajea. Baina horregatik ez diogu uko egingo bidaiatzeari, noski. Lehena izan da Montaigne maitea, *Journal du voyage en Italie, par la Suisse et l'Allemagne en 1580 et 1581*. Eta ez dakit entseiu jarraipen, baina bai osagarri, haietan egiten zuen bere buruaren irudiarena, besterik ez bada. Hainbesteko lanketa filosofiko-literario gabe, apenas dagoen lekuri eguneroko bizimodu, sinple, materialarentzat.


Ezen Montaigneren bidaiak Italia baitu helburu, zehatzago Erroma –ematen du kargu baten xerka, agian enbaxadorearena–. Egiazki, nahiago luke joan Krakovia edo Greziara. Bost axola, hemen ere helmuga baino garrantzitsuagoa baita bidea. Eta bidean topatzen dituenak notatzea, erlijio, politika, zibilizazioari buruzkoak. Lurtarrago sarri, diru kontuez ari da, edo konpainiako emakumez. Are lurtarregi, azaltzen nola bota duen giltzurruneko harria, kostata. Nahiago du joan gutxik bisitatutako lekuetara, askok bisitatutakoak ezagunegi baitira –Venezia, adibidez, aurkitzen du ez hain admiragarria–. Aita santuari egindako bisita kontatzen digu, bai, baina gehiago laketzen da haur judutar baten zirkunzioan. Eta ironiaz aipatzen du Erromako hiritar izendatzen uzten dela. “Ez dakit zer bilatzera joaten naizen atzerrira, baina oso ondo dakit zerengandik ihes egiten dudana etxetik”.

Stefan Zweigek, Bigarren Mundu Gerra lehertuta, bere garairekin konparatzen du Montaignerena: inoizko gorraldirik gorena ondoen inoizko beheraldirik bortitza bizitzea tokatu balitzaie bezala. Eta famatzen dio independentzia atxikitzeke esfortzua, gizarte gero eta basatiago eta menekoago batean. “Beste gauza askoren artean, Montaignek erakusten digu bidaiatzen”; gurea bezalako garai zurrumbilotsuetan barrena ere. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



ADUR

Sanferminak

Zortzi pertsona atxilotu eta horietariko bat espetxeratu dituzte Iruñeko jaietako prozesio eguneko istiluengatik. Espetxeratuari epaileak egotzi dio Curia kaleko istiluan udaltzain bati sudurra hautsi izana ukabilkada batez. Ahotsa-k zabaldutako bideo batek frogatzen du udaltzaina izan zela ukabilkada askatzen lehena.

Osasuna

Ostreopsis mikroalga toxikoaren kontzentrazio altua aurkitu dute Ipar Euskal Herriko hainbat hondartzatako uretan. Ez da alga mota hau gurean dugun lehen aldia eta katarroaren eta gripearen antzeko sintomak sor diezake (oro har larritasunik gabeak) uretan dauden edo urertzetik dabilten pertsonen.

Mercedes

Astelehenean bozkatu zuten langileek Mercedeseko zuzendaritzak eta enpresa batzordeko sindikatuen %55ak aurreko astean sinatutako akordioa, langile askok grebarekin jarraitzen zuen bitartean. ELA, LAB eta ESK-k salatu dute erreferendumaren araudia urratu duela patronalak, eta langileak presionatzen ari dela zuzendaritza.

EKONOMIA

Krisi hotsak ikasturtea bukatzeko



AINHOA ETXAIDE
AMORRORTU

Ekonomista neoklasikoek parekatu zuten ekonomia eta merkatua. Argi zuten berebiziko garrantzia zuela ekonomia non hasi eta non bukatzen den definitzeak, balio ekonomikoa zerk duen, politika ekonomikoaren eremua zein den eta subjektu ekonomikoak zeintzuk diren behar bezala zehazteko.

Hamarkadak pasa dira ekonomia feministak ikuspegi mugatu hori hantzez gora jarri zuenetik, atzean dagoen iruzurra eta helburuak agerian jarri zituenetik. Baina tira, ekonomia neoklasikoa hegemonikoa da oraindik, eta dogma errespetatuz, bi edo hiru hilabetez atzera egin behar du ekonomia krisia dagoela esan ahal izateko. Beraz, ez gaude krisian, ez behintzat hazkunde ekonomiko negatiboan hainbat hilabetez jarraian egon arte.

Baina merkatua gainditzen duen edozein azterketa ekonomikok erakusten du bizi dugun krisiaren dimentsioa. Krisia badago bai: pobreziaren arriskua neurririk gabe handitzen ari delako; behar duen orok zaintza duina jasoko duela ziurtatzen ez delako; kontsumitzen dugunaren arabera balioa eta lekua dugulako jendartearen; erosteko ahalmenari sekulako garrantzia ematera behartuak gaudelako, jakitun geroz eta gehiago kontsumitzeak orduan eta menpekoago egiten gaituela...

Krisia betiko parametroen arabera neurtu eta aztertuko dutela esaten ari zaizkigun honetan, momentu aproposa izan daiteke merkatuaren zentraltasunaren eta nagusitasunaren kontrako diskurtso ekonomikoa eztabaida politikoaren erdigunera eramateko. "Bizitzak erdigunera" leloa, edukiz, proposamenez eta estrategiez janzteko. Eta zergatik ez, amildegiaren diskurtsoari beldurra galtzeko, Gasteizen Mercedeseko langileek egin bezala. ●

ANALISIA

Haize erroten aurrean

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Badatoz berde izeneko haize errota. Green Capital Development enpresak lau ditu eskatuak Gipuzkoan soilik: Karakate, Buruzai, Treku eta Eskeltzukoak. Florentino Pérezen izena entzuten da enpresa honen atzean ere. Diru publiko-ko ongarrirako den lur emankorra da energia "berdeen" monopolioa, lehendik jardura kutsatzaileetan dirua egin duten enpresari entzuten. Eta Europako 2030 Agendak haizatzatzen du Klima Larrialdiaren aitzakiapean sustatzen duen negozioa: izan ere, Jaurilaritzak 2030erako eolikoaren alorrean jarria duen helburua da denen artean 630 MWko indarra izango duten parke eoliko berriak jartzea, egun dauden 153 MWko indarretik 783 MWko indarrera igoz.

ANDATZA-ESKELTZU: ANIMALIAK ETA ABELTZAINZA ARRISKUAN

Green Capitalek Andatza-Eskeltzu gunean ezarri nahi duen 18MWko indarra duen parke eolikoaren proiektua Jaurilaritzaren Ingurumen sailean da, baimena lortzeko zain. Onarpena jasoko balu, bost hilabete epean eraikia legokeela dio enpresaren kronogramak. Proiektuaren arabera, 121 metroko lau errota jarri nahi dituzte, Usurbil eta Zizurkilgo lurretan, eta sortu duen energia garraiatzeko tentsio ertaineko kableak pasatuko dituzte lurrazpitik (ia 9 kilometroan) Adunan Iberdrolak duen argi lotuneraino. Errota bakoitzaren besoek 158 metroko diametroa harrapatuko dute.

"Zizurkili geratzen zaion gune natural bakanetakoa da eta txikitu egingo dute" adierazi du Ainhoa Gil Andatza-Eskeltzu Bizirik! elkarteak. Gogorarazi du 36ko gerrako trintxerak daudela bertan, baita sarobeak eta elur zuloa ere eta eragin zuzena izango duela miruengan, han umatzen baitira. Aranzadiren Ornitho plataformaren arabera, 2021ean 106 txori espezie erregistratu ziren bertan. Lurralde hori kritikoa da arrano, hontza eta putreentzat eta baita xaguzaharrentzat ere. Baina abeltzaintzari ere bete-betean eragingo dio: "Eskeltzuko sailak pribatuak dira, baina duela 20 urte baserritar elkarteak egin zen gain horretan dauden jabetza pribatu denak elkartuta eta geroztik Zizurkilgo baserritar bakoitzak aukera dauka udan ganadua hara eramateko, hau da, jabetzaz pribatua izan arren herri sail bezala erabiltzen da". Parke eolikoak sortzen duen burrunbak eta uhinek ganadua izutzen dutela adierazi du, "bi jarduerak ez dira bateragarriak".

Bertako paisaia eta nekazaritza jardura txikituta sortzen den dirua nora eramango du haizeak? Guztiona den baliabide naturalak xurgatuz sortzen bada energia, honen jabetzak publikoa eta helburuak komunitarioa behar du izan, herriarrik ez dadin geratu energiari gabe. ●



ESKELTZU PROIEKTUA

Lau orratzek seinalatzen dute non joango den haize errota bakoitza. Bide morea, errota bakoitza egokituko duten asfaltozko bidea. Berdez, argindarra lurpetik eramateko sartuko dituzten kableak.

%52

da euskararen transmisioa, guraso euskaldun bakarreko familietan ama denean euskara hiztuna. Aldiz, %36koa da transmisioa, euskaraz hitz egiten duena aita bada.



8.000 milioi

herritar izango ditu planetak datorren azarorako. Oro har jaiotze tasa txikitzen eta biztanleria zahartzen ari da. Hurrengo urtean, India izango da munduko herrialderik populatuena, Txinaren aurretik. NBEk emandako datuak dira.

5 milioi

kilometro egin dituzte aurten EAEko 238 goi-karguk auto ofizialean. Orotara, 3.785 ibilgailu daude Eusko Jaurlaritzaren esku eta ia 18 milioi euroko kostua dute urtean gutxi gorabehera.

“Oso pozik gaude funtsaren eraketarekin, maila bateko justizia lortuko dugu”

JESUS UZKUDUN

Asviamie EAEko amiantoaren biktimen elkarteko kidea da Uzkudun. Amiantoaren biktimei kalte-ordainak emateko funtsak aurrera egin du Espainiako Kongresuan.

HAMAICA TELEBISTA (2022-07-14)



“GAI IZAN BEHAR DUGU BURU OSASUN NAHASMENDUARI EZAUGARRI POSITIBOAK ATXIKITZEKO”

ALBERT PIQUER

Piquerrek antsietate krisia jasan zuen. Buru osasunaren nahasmendua pairatzen zuela onartu eta laguntza bilatu zuen.

LA DIRECTA (2022-07-12)

“XXI. mendeko gizarte erresilienteak eraiki nahi baditugu, has gaitezen elikaduratik”

**CAROLYN STEEL**

Hirien eta landaguneen arteko deskonexioaz mintzatu da Londresko arkitekto eta ikerlaria.

LA DIRECTA (2022-07-07)

TEKNOLOGIA

Eduki moderatzaileen oreka mentala



DIANA FRANCO

Bada, egun ditugun sare sozialetan, oso ezaguna ez den lan bat, eduki moderatzailearena. Dirudienez, eremu digitalean dena ez dago pentsatzen dugun bezain automatizatuta, zenbait eremutan behintzat. Badira makinak ongi bereizten ez dituzten edukiak: bortizkeriarekin loturikoak batez ere, sare sozialen jabeentzat buruhauste, bortizkeria zabaltzeko nahi duen eta algoritmoak zirikatzen ikasi duen jendea badagoelako. Jokabide horiek eragozteko, eremu digitaleko korporazio handiek eduki moderatzaileen lana sortu dute. Eduki moderatzaileek, egunero, lanaldi osoan bortizkeria oso grafikoki azaleraztzen duten edukiak ikusi eta zentsuratu behar dituzte. Lan hauetarako, askotan garapen bidean dauden herrialdeetako pertsonak kontratatzen dituzte. Berritoki ere “mundu garatuetako” honakinek, garatzeko bidean dauden herrietako gizarteetan zabaltzen ari dira.

Azken urteetan lan hau existitzen dela ezagutu dugu, eduki moderatzaileek salatu dutelako euren egoera mentala asko kaltetu dela.

Ba al dago adimen artifizial baten aukera, mundu digitalean ikusi nahi ez duguna eragotziko duena? Noraino al denduko gaitu horrek gizakion izaeraren errealitatea ezagutzetik? Gizakion burua errealitate horretatik babesteak noraino ez gaitu ahulago bihurtuko elkarrekin ekiteko?

Nire bulegoan, emakumeen bortizkeriaren kontra lan egiten duen emakume talde oso interesgarria dut. Bortizkeriaren eremu guztietan lan egiten dute: legezkoa, emozionala, gizarteratzeari loturikoa...

Beharbada, emakume horien eredu aintzat hartuz, moderatzaile eta algoritmoen bidez arazoa ezkutatu beharrean arazoa dagoela gizarteratu beharko litzateke, eta arazoa aurrez aurre borrokatzeko bideak sortu beharko litzateke korporazioek. Beharbada. ●

NAZIOARTEA



JIM LO SCALZO / GETTY IMAGES

Kalean otso, etxean...?

AXIER LOPEZ

Presidente bat [Trump] prest badago, gezurren eta engainuen bidez, bere jarraitzaileak gerra zibilera bultzatzeko, horrek dakarren giza kostua kontuan hartu gabe, zer gehiago egin lezake bera berritoki [presidente] aukeratzen badute?”, adierazi du Jason Van Tatenhovek 2021eko urtarilaren 6an AEBetako Kapitolioari egindako eraso ikertzen ari den batordearen aurrean. Van Tatenhove, The Oath Keepers-eko kide eta bozeramaile ohia da, zibil armatuz osatutako eskuin muturreko talde supremazista bat. Izan ere, azken asteotan jakitera eman dute Trump eskuin muturreko taldeekin harremanetan jarri zela erasoaren aurreko egunetan.

Donald Trumpen gobernuko Segurtasun Nazionaleko aholkulari ohi John Boltonek iradoki du presidente ohiak ez zuela behar besteko gaitasunik kontu handiz planifikatutako estatu kolpe bat gauzatzeko. Gaineratu duenez, kapitolioaren kontrako erasoak “ez zen gure demokraziaren aurkakako erasoak izan. Berak bandaloak askatu zituen Kapitolioan, ez dago zalantzarik, baina ez Konstituzioa boteretik kentzeko, berarentzat denbora erosteko baizik”.

Halere, horiek ez dira izan zalaparta eragin duten adierazpenak. AEBek beste nazio batzuetako herritarren bizitzetan etengabe egindako esku-sartzea salatzen dutenei arrazoa eman die Boltonek: “Estatu kolpeak planifi-

katzen lagundu duen norbait izanik, ez hemen, baizik eta beste leku batzuetan, badakit lan asko egin behar dela”. Boltonek Segurtasun Nazionaleko aholkulari gisa jardun zuen 2018 eta 2019 artean, harik eta Trumpek kargutik kendu arte. Bolton ezaguna da sionismoaren aldeko bere jarrerengatik, baina bereziki Saddam Hussein boteretik kentzeko Irakeko 2003ko gerraren sortzaileetako bat izan zelako, suntsipen handiko armen gezurra haizatu zuenetako bat izan baitzen. George W. Bushen agintaldian NBEn enbaxadore ere izan zen 2005etik 2006ra.

2019ko Venezuelako krisi politikoa zehazki aipatu du Boltonek, oraindik Segurtasun Nazionaleko aholkulari zela gertatutakoa. Urte horietan AEBetako gobernuak izan zen Juan Guaidóren figuraren sortzaile eta sustatzaile nagusia. AEBek emandako nazioarteko babesari esker, Guaidók bere burua aldarrikatu zuen Venezuelako presidente gisa, hautestontzietatik igaro gabe. Herritarrek aukeratutako Venezuelako gobernuaren aurkakako kolpe horrek porrot egin zuela onartu du Boltonek elkarrizketan.

AEBek historia luzea dute demokratikoki aukeratutako gobernuen aurka laguntza militarra ematen, finantzatzen, antolatzen eta estatu-kolpeak aktiboki sustatzen. Eta beharbada, kolpeak antolatzen dituen herrialde batek ez luke hainbeste harritu behar hori bera etxean bertan gertatu denean. ●

Zer ari da gertatzen erraustegian?

LANDER ARBELAITZ MITXELENA ARGIA



DONOSTIA / Joan den asteen, egun batzuez, Arkaitzerreka erreka kutsatzen aritu da Donostiako Zubietako erraustegitik ateratzen den hodi bat. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak adierazi zuen erraustegian ez dela isuririk gertatu, baina ez dute esan zer ari den gertatzen. Horren aurrean, pasa den asteburuan dozenaka lagun bildu dira Zubietako Plazan, Errausketaren Aurkako Mugimenduak deituta. Komunikatu zorrotza irakurri dute, agintarien azalpen falta salatuz, eta zuzenean Gipuzkoako ahal-dun nagusi Markel Olano interpelatu: “Non zaude? Zeri begira bizi zara?”. GuraSOS taldeak adierazi du ikerketa fiskaltzara eraman dutela.

“Gipuzkoa gainezka dago erraustegia kontrolatu dezaketene eta kontrolatzeko obligazioa duten funtzionario, agintari

eta profesionalen. Baditugu kolore guztietako poliziak, Ingurumena zaintzeko agentzia publikoak, ahoa ‘gubernantzaz’ eta ‘gardentasunez’ betetzen duten enpresa publiko eta pribatuak, herritarrei egia kontatzen omen diotela harro esaten duten agintari eta politikariak... Baina arriskuz betetako erraustegi bat kontrolatzeko orduan, inor ez dago: inor ez dago begira, inor ez zerbait gertatutakoan alerta jotzeko, inor ez susmagarriak kontrolatzen... Makel Olano, Gipuzkoako ahal-dun nagusia: Non zaude? Zeri begira bizi zara?”, galdetu dute.

EAJko politikariari aurpegiatu diote ez zutela atsedene izan “erraustegi munstroa” martxan jarri arte, nahiz eta herritarrek behin eta berriro ezetz esan, edo udal askok erakutsi hondakinak kudeatzeko modu merkeago, osasuntsua-

go eta efikazagoak daudela, edo nahiz eta herri mugimenduak urteetan mobilizatu proiektuaren aurka.

Bestalde, GuraSOSek iragarri du gizarte zibila Arkaitzerrekan izandako isurketa ikerkertzene ari dela eta fiskaltzaren esku dagoela jada. Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumen Sailak kutsaduraren jatorria zein den jakiteko ikerketarik egin ez izana salatu du. Kontrara, goraiatu egin du gizarte zibilak gaiari heldu eta ikerketa abiatu izana –Errausketaren Aurkako Mugimenduak edo Usurbilgo udaltzaingoak ur kutsatuaren laginak hartu ditu lehen egunetik eta laborategi batean analizatzen ari dira-. Fiskaltzari eskatu diote azkar eta zehatz jarduteko, gertaerak argitzeko. “Gizarteak zer gertatzen ari den jakiteko eskubidea du”. ●

ELIKAGAIEN KRISIA GAINDITZEKO, BASERRITARRAK SUSTATZEAZ GAIN **KALETARREI EMAN AUKERA ORTU BANA EDUKITZEKO**

Familia asko betidanik saiatu dira nor bere ortu txikian osatzen etxeko janari beharrak mundu osoko hiri handi eta txikietan. Hala egiten dute Kuban bezala boikot ekonomikoagatik emergentzian bizi diren herrialdeetan, gerraren ondorio latzak nozitzen dituztenetan eta oro har herrialde eta inguru txiroetan. Mendebaldeari estualdi gogorra iragartzen zaionean, hemen ere heldu ote da baratze txiki pribatu, kolektibo zein publikoen garaia?

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

Uztailaren 9an *Gara* egunkaririk Jon Jausoro Saez de Camarak galdera zehatza egin die Eusko Jaurilaritzari eta Arabako Foru Aldundiari euskaldunok jaten ditugun elikagaien jatorriaz: “EAE eta Araba mailan behar diren elikagai horietatik zenbateraino ase ditzakegu lekuko baliabide eta laboreekin?”. Beste asko bezala, Jausoro kezkatuta dago agintariak ahoa betetzen duten arren iraunkortasunez eta hurbileko produkzioz, egunerokoan elikagaien zirkuitua gero eta globalagoa delako. Eta globalizazioak bere arriskuak erakutsi dituelako, hasi Suezeko kanalean harrapatutako baporeak eragindako krisiarekin, larriagotu Covidarekin eta errematea emanda Ukrainako gerrarekin. Jendeak bermatuta ote dauzka biharko eta datorren asteke otorduak?

EAE edo Euskal Herrian ez bezala, antza, Britainia Handian agintariak aztertuta dute gaia, Michael Raw laborantza gaietan aditu ingelesak ‘Renegade’ bideo kanalarik azaldu dionez: “MI5 Erresuma Batuko inteligentzia zerbitzuak herrialdearen ahulgune nagusien artean aipatzen du britainiarrok gaudela *four meals from anarchy* (anarkian erortzetik lau otordura)”. Alegia, jendeak lau otordu egin ahal edo ezin izatea dagoela normaltasunaren eta kaleko anabasa orokorren artean. Supermerkatuetako apalak hustuz gero, kasu kaleetako matxinada liskartsuari.

Rawk kontatutakoa ‘Energy Balance’ blogean laburbildu du Chris Rhodes unibertsitateko irakasle eta Transition Towns mugimenduko kideak: *Four Meals From Anarchy – We Must Grow More Food Locally* (Anarkian erortze-

tik lau otordura: janari gehiago ekoiztu behar dugu lekuan bertan): “Britainia Handiko elikagai politikak funtsean segurutzat jotzen du urrutiko herrialdeek jarraituko dutela gu janariz hornitzen, gaur egun hemen kontsumitzen denaren erdia atzerritik baitator. Hau oso arriskutsua da, batik bat hainbat nazio hasi direnetik politika protekzionistak antolatzen, elikagaiak esportatzeko debekuak ezarriz. Hornidurak urritzen badira, dagoeneko garestiak diren elikagaiak are gehiago garestituko dira”.

Komeni da ondo ulertzea hornikuntzaren eta prezioen arteko logika berezia. Rawren kalkuluetan, jakiak urritzen badira %3 ohiko hornitze mailatik, haien prezioak igoko dira %12; hornidura %5 jaitsiz gero, prezioak %20 handituko dira eta hornidurak %10 jaitsita, prezioak %100 garestituzera inguratuko.



UDAL BARATZEAN

Emakumea etxean frijitzeko kuiatxoreak biltzen, Altsaziako Illzach herrian udalak bizilagunei lagatako 62 kaleko ortuetako batean.

LALSACE

Rawk badaki zertaz ari den, teoria jakiteaz gain praktikan ere ikusi berri baitu horniduren krisia Britainia Handian gertatzen, *Brexit*-aren hasierako ordurik gogorrenetan. Horregatik dio ez litzatekeela harritzekoa agintariak laster jakien errazionamenduak ezartzea. Hala egin zuten II. Mundu Gerran eta haren ondoren ere luzaz: Europa osoan agintariak diruz lagundu zituzten baserritarrak soro eta ukuiluetan gehiago ekoiztu zezaten.

Elikagai burujabetzaren behar larriaz azken urteotan nekazariak aritu dira ohartarazten eten barik, baina ez zaie kasurik egin. Aldiz, hazkunde ekonomikoaren egitura osoa ekaitz perfektuak astinduta krisian amildu duelarik, Rawren aurreikuspenetan laster gerta

MI5 inteligentzia zerbitzuak dio Britainia Handian daudela *"four meals from anarchy",* anarkian erortzetik lau otordura

liteke arrisku teorikoa zena egunero-ko irudi bihurtzea supermerkatuetan: atari aurreetan jende ilara luzeak zain eta biltegi barruetan apalak hutsi jenerorik gabe.

Prezioei dagokienez, elikagaiak jada garestituta daude mundu osoan. Baina nekazariak beren laboreak hazi arazteko behar dituzten ongarrrien garestitzeak iragartzen du zer gertatuko den janariaren prezioekin datorren udazkenean eta, zer esanik ez, heldu diren urteetan. Urrutiko jakiak prezio igoera handiekin baldin badatoz, horri gehitu hemen bertako laborantzaren zati handi bat epe laburrean desagertu ere egin daitekeela.

Europako laborariak daude, esan ohi den bezala, ingudearen eta mailua-

ren artean harrapatuta: batetik beren ekoizpenak ezin saldu prezio duinetan eta bestetik behar dituzten ongarri eta hornidurak ezin pagatu. Etxalde asko dago jarduera bera ere etetera bortxatuta. Euskal Herrira edo zehazki EAE-ko itsas aldera etorrita, baserritarren kinka larria gardentasunez azaldu zuen apirilean *Gaur 8* astekarian Eneritz Otamendi Igeldoko nekazariak: “Egoera hain da larria, une honetan daukagun testuinguru honek bi edo hiru hilabete-tan irauten badu, baserri asko itxi egingo direla”.

Krisi handi honek eskatzen du elikadura politikarekin batera aldatzea nekazaritzaren planifikazio eta laguntzen egitura osoa, jendeentzako elikagai duinak prezio duinetan ekoiztea izan dadin lanbide erakargarria. Baina agintariekin landu beharra daukate beste bide bat ere: bermatu familia eta pertsona bakoitzari etxerako janariaren parte bat

Ikerlan batek erakutsi du britainiarrek jaten dituzten fruitu eta barazkien %40 ekoiztu daitezkeela kaleko baratzeetan

nork bere baratzean ekoiztu ahal izatea. Hots, hirietako baratzeak sustatzea baina bere potentzialitate osoan. Familia bakoitzaren autonomia hobetzeaz gain, ortu txiki horietan egon daitekeelako herrialde osoaren elikadura segurtasunaren gakoetako bat, eta ez gehienek uste bezain txikia.

2022 hasieran plazaratu da Britainia Handiko zenbait unibertsitatearen artean, Leicesterrekoa buru, egindako ikerlan bat erakutsi duena herrialde hark kontsumitzen dituen fruitu eta barazkietatik %40 ekoiztu daitezkeela kaleko baratzetarako erabiliz hirietan eta inguruetan erabili gabe dauden lurrrak: parkeak, ur bazterrak, auzo eta aldirietan abandonatutako eremuak... *Potential of urban green spaces for supporting horticultural production: a national scale analysis* (Hirietako berdeguneek barazkiak ekoizteko daukaten potentzialitatea: nazio mailako



BARATZE OBREROA

Jardin Ouvrier (baratze obrero) batean lanean, Marseillako Coder enpresaren lurretan. 1941ean laga zizkien ugazabak fabrika ondoko lur muturrok.

**ETORKIN FAMILIA BAT**

Manchesterreko (Erresuma Batua) udalak Gorse Hill auzoan lagatako ortu komunitarioetako batean.

CAPITAL GROWTH

analisia) azterlana interneten dago eskuragarri.

Horretarako, ordea, administrazioak herritar guztiei bermatu behar die familiarako elikagaiak ekoizteko eskubidea. Aditu Chris Rhodesi: “Lur mutur bat lantzea eskubide bat izan behar du. Parlamentuak legez ezarri behar du udalak eta eskualdeko administrazioak derrigortuta egotea edozein herritarri baratzetarako lur mutur bat materia, eskaria aurkeztuta gehienez hiru hilabeteko epean, itxaron zerrendak amaituz. Horretarako,

**Legez ezarri behar
da udalek edozein
herritarri baratzetarako
lur bat eman behar
izatea, eskatu eta hiru
hilabeteko epean**

lur jabeek derrigortuta egon behar dute erabili gabeko eremuak administrazioari prezio tasatuan alokatzera”.

Chico Mendes lurrik gabeko nekezari brasildarren liderrak esana omen da: “Ekologia borroka sozialik gabe, lorezaintza da”. Gisa berean, hirietako baratzteen fenomenoak gaintitu lezake sarritan daraman klase ertain progressista baten gentrifikazio marka, baldin eta krisi garaiotan bereganatzen badu ortua aldarrikatzea herritar ororen eskubidetzat. ●



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

www.zinkunegioptika.com





DESHAZKUNDEA EZ DA PROPOSAMEN POLITIKOA, GURE TESTUINGURUA DA



Duela bi urte entzun nuen lehen aldiz Yayo Herreroren hitzaldi bat, Feministaldia jaialdian, eta orduz geroztik ezin izan ditut burutik kendu haren galdera eta hausnarketa zorrotzak. Ingeniaria, antropologoa eta irakaslea da Herrero, eta ekofeminismoa du borrokarako esparru. Badaki hainbat dimentsioko krisi baten aurrean gaudela gizarte moduan, eta horregatik aldarrikatzen ditu eguneroko utopiak.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  DANI BLANCO

Ibilbide luze-oparoa egina duzu aktibismo ekofeministan, baina atzera begiratuta, gogoan al duzu noiz hartu zenuen gaiaren gaineko kontzientzia?

Oso ondo gogoratzen naiz. Gaztetatik aritu naiz gizarte-mugimenduan, 14 urte nituenetik. Hasieran, elkartasun internazionalaren kontuarekin hasi nintzen, eta gero sindikalgintzan ere bai. Kaletar petoa izan arren, lotura estua izan dut beti naturarekin. Ingeniaritza ikasten ari nintzela, oilategi batean egon nintzen. Argi ikusi nuen, baldin eta halako gauzak egin behar bagenituen jateko, zerbait gaizki zebilela. Hori izan

zen nire iratzartze ekologista, eta laster asko ekologismo sozialarekin bat egin nuen, aurrez nekarren eskarmentuagatik. Ekologistak Martxan erakundean ari nintzela, Cristina Carrasco, Ana Bosch eta Elena Grauren artikulua bat irakurri nuen, ekologismoa eta feminismoa uztartzen zituen, eta horrek, nolabait ere, dena lotu zuen, eta kosmobisio desberdin bat eman zidan. Hor entzun nuen lehen aldiz bizitzaren iraunkortasunaren kontzeptua.

Antropologia Feministaren Nazioarteko lehen Kongresuaren aitzakian etorri zara Donostiara

[ekainaren 10ean bildu ginen].

Kongresuaren planteamenduari dago-kionez, izugarri gustatzen zait gizarte-mugimenduekin eta gizartearekin bera-rekin duen lotura. Funtsezkoa deritzot. Kongresu honetan lantzen den ezagu-tza- eta ikerketa-arloak eraldaketarako borondatea du. Eta oso garrantzitsua da hori.

Hain zuzen ere, antropologia feministaren, feminismoaren eta gizartearen arteko loturak aztertuko dituzue mahai-inguru batean.

Ni ez naiz sekula ibili emakumeen talde feminista batean, mugimendu ekologis-



Yayo Herrero

MADRIL (ESPAINIA), 1972



Ikasketaz, antropologo soziala, nekazaritza ingeniaria eta gizarte-hezitzailea da Yayo Herrero, baina aktibismoari tinko lotuta egin du bidea. Ekologistak Martxan erakundeko koordinatzailea izan da –bertako kidea da oraindik–, eta hezkuntza ekosoziala bultzatzen duen FUHEM fundazioaren presidentea ere bai. Hainbat liburu eta artikulua argitaratu ditu ekofeminismoaren eta ekologismo sozialaren inguruan, hala taldean nola bakarka.

tako kidea naiz, eta aktibista feminista naiz mugimendu horren barruan, jakina, baina gure mugimenduan ez gara emakumeak bakarrik, eta ez gara pertsona feministak bakarrik. Nire antolakundeak, bere printzipio ideologikoetan, feministatzat jotzen du bere burua, baina horrek ez du esan nahi dinamika patriarkalez libratu garenik, ezta horien aurrean denok erne gaudenik ere. Bide luzea daukagu egiteko. Posizio horretatik hitz egingo dut.

Eta, horren harira, zer erronka ikusten dituzu mugimendu ekologistan?

Uste dut subjektua berrikusi behar dela, hau da, zer den gizakia, eta uste dut zenbait dinamika gairitu behar ditugula: gure kulturen lurrari eta gorputzei kanpotik, gailentasunetik eta instrumentalizaziotik begiratzeko joerak. Gainera, uste dut feminismoak eta begirada antropologikoak oso lagungarriak izan daitezkeela kolapsoari eta krisi ekologikoari buruzko ikuspegi matxo samar bati begiratzeko, eta kolapsoa edo hainbat alderdiko krisia deitzen dugun hori eguneroko bizitzarekin, gorputzekin eta ondorekin konektatzeko. Leku horrek gizarte mobilizatzeko aukera gehiago ematen du, itxaropentsuagoa da, gainera datorkizun eta harekin zer egin ez dakizun kolapsoaren beste ikuspegi hori baino.

Kolapsoa aipatu duzula-eta, zer diozu pandemiaz eta pandemia-osteaz?

Pandemiak, hasieran batez ere, halako argitasun-une bat eman zigun, normalean ikusteko zailak diren zenbait gauza ikusteko aukera. Adibidez, agerian geratu zen metabolismo ekonomikoaren hauskortasun izugarria. Halaber, zenbait debate pizteko bidea eman zuen –pertsonen artean esan nahi dut–, hala nola zein diren oinarritzko lanak, eta nola oinarritzko lanak, maiz, emakumeek egiten dituzten, eta gaizki ordainduta dauden. Bestalde, eta hau behin eta berriro aipatzen dut, oso garrantzitsua iruditzen zaidalako, eztanda komunitario bat gertatu zen. Egoera oso gogor batean, jende askok, pauso bat

aurrera egin, eta besteak zaintzeko prest zegoela erakutsi zuen. Eta horrek beste ideia bat dakar: jendeak jakingo balu egoera zein den benetan, gizartearen puska handi bat behintzat prest egongo litzateke bere bizimoldea modu nabarmenean aldatzeko, berek, maite dituztenek eta, ondorioz, gizarteak oro har, bizitza onak izateko helburuarekin.

Kezkatzeko motiborik ere utzi du pandemiak.

Diskurtso arriskutsuak ikusi ditugu. Adibidez, halako diskurtso militarizatu batzuk, guztiok etsaiaren aurrean batzeari buruzkoak-eta, problematikoak dira, antzeko diskurtsoak erabiltzen baitira migratzaileen, disidenteen edo emakumeen aurka. Bestalde, adineko jendea soberakintzat hartzea beldurgarria da; izugarria iruditu zitzaidan nola, zerbitzu publiko batzuetan, jende zaurgarria negozioarako lehengaitzat hartzen den. Eta auzokideak zelatatzearen kontu hori ere oso larria iruditu zitzaidan. Azken batean, polarizazio bat bizitzen ari gara: elkar babestuz, elkarri lagunduz eta antolatuz egingo dugu aurrera, ala etsai komun bat sortuz eta arazoekudeaketa estatuaren eta segurtasun-indarren esku utziz? Uste



Nahikotasunaren printzipiotik abiatuta irudikatu behar dugu bizitza: nahikoarekin bizitzen ikasi, eskubidetik eta betebeharretik”

dut bi korronteak presente egon zirela pandemian, eta gaur egun bizi dugun tentsioaren isla direla.

Pandemia lasaitu da, baina egoera larria bizi dugu hala ere. Hori aho-bilorik gabe kontatzearen eta

azaltzearen aldekoa zara.

Gaitzaren larritasuna apaldu da, eta osasun-sistemak jada ez daude krisian, baina energiari eta materialei dagokionez sekulako arazoa daukagu: tokiko hornikuntza-kateak hautsita daude, eta une honetan, herrialde askotan, elikaduraren hornikuntza murritzen eta arautzen ari dira. Oso probalea da hilabete batzuen buruan elikadura-krisi bat izatea, elikagaien prezioaren igoeragatik, eta oso larria iruditzen zait horren harira ezer ez egitea.

Hala, ezinbestekoa iruditzen zait, lehenik, jende gehienak ahalegin aha-



lik handiena egitea gure egoera zehatza zein den ulertzeko. Ezinezkoa iruditzen zait jendearen bizi-baldintzak babesten dituen bestelako eredu bat irudikatzea, jendeak ez baldin badaki zer egoeran gauden. Horregatik, errealitatea bere gordinen erakustearen babesle porrokatua naiz. Eta, hortik aurrera, planetaren muga fisikoekin bat datozen bizitza desiragarriak irudikatzen hasi.

Nolako bizitzak lirатеke?

Nahikotasunaren printzipiotik abiatuta irudikatu behar dugu bizitza. Nahikoarekin bizitzen ikasi, eskubidetik eta betebeharretik. Izan ere, batzuek ez daukate nahikoa, eta eduki behar dute, eta beste batzuok dagokiguna baino gehiago daukagu –alderdi materialaz

ari naiz etengabe–, eta desahazkunderi heldu behar diogu, aberastasunak banatuz eta bizitza komuna eta bizitza ona iparrorratz moduan hartuz, bai politika publikoetan bai egunerokoan.

Erregai fosilak agortuko direla aintzat hartuta, argi dago gutxiagorekin bizitzeko ikasi beharko dugula. Hala ere, desahazkunderen ideiak errefusa sortzen du oraindik ere.

Ni ez nago ados desahazkunderen ideia proposamen politiko gisa aurkeztearekin. Desahazkundera ez da proposamen politiko, gure testuingurua da. Gure sistema sozioekonomikoak desahazkundera jasango du maila materialean, ez dagoelako hazten jarraitzeko baliabi-

derik. Nahitaez gertatuko da. Eta hori bi modutan gerta daiteke: onez edo txarrez. Txarrez eginez gero, faxismoa eta ekofaxismoa ikusiko ditugu. Onez, berriaz, gutxiagorekin bizitzen ikasi beharko dugu, globalki noski, zeren badira oraintxe bertan bizitzeko nahikoa ez daukatenak ere.

Gainera, desahazkundera gertatzen ari da jada: faktura ordaindu ezin zuela eta argia kendu diotenak desahazkundera bizi du, kalitate eskasagoko janaria jaten duenak berdin, etxetik botatzen dutenak ere bai. Eta beste herrialde batzuetan aspalditik jo dute behea jendearen bizitzek.

Orduan zergatik kostatzen zaigu hainbeste diagnostiko hori onartzea?

Gure kulturaren, aurrerapenaren ideia hazkunde materialarekin eta ekonomikoarekin lotu izan da; ondorioz, desahazkundera atzerapenaren zantztzat hartzen da. Batetik, elementu hori hor dago. Horrekin lotuta, kontuan hartuta aurrerapenaren ideia zer garrantzitsua den gure gizartean eta, bestalde, teknologiak den-dena konponduko duela zin egin zaigula, ondo baino hobeto ulertzen dut bat-batean jendeak sekulako disgustua hartzea egoeraz ohartzen denean. Niri ere gertatu zait. Eta dolu hori egin behar da: saldu zaigun aurrerapen materiala ezi-nezkoa dela onartzeko dolua.

Beste adibide bat jarriko dizut: bazoaz medikutura, eta minbizia daukazu esaten dizute. Sekulako disgustua da. Beste pare bat medikutura joaten zara, ziur jakiteko, eta behin onartzen duzunean minbizia daukazula benetan, ba dena bideratzen duzu sendatzeko helburu horretara. Eta, bat-batean, gauza mordo batek garrantzia galtzen dute, eta osatzea da inportanteena. Ba, hemen, antzera. Behin diagnostikoa onartu duzunean eta ulertu duzunean non gauden, etorkizunera begiratu nahi duzu, ea zer egin daitekeen zerorrek eta ingurukoek orainari eta etorkizunari gogoz heldu ahal izateko.

Tartean zabilzan pare bat proiekturi buruz galdetu nahi dizut. Batetik, Garúa kooperatibako kide-sortzailea zara. Zer da, eta zer egiten duzue?

Duela hamabost urte inguru sortu genuen lau kidek. Elkarrekin genbiltzan aktibismoan, eta ikuspegi antzeko sa-



marra geneukan hezkuntzaren arloan. Proiektu bat sortu nahi genuen ekonomia sozial eraldatzailearen sarearen barruan, bertan gure lanbidea garatzeko. Ondoren, beste kide batzuk elkartu zaizkigu, eta gaur egun hamahiru lagun gara. Esan bezala, hezkuntzarekin hasi ginen, baina gaur egun trantsizio ekosozialak bideratzen laguntzen dugu, ikuspegi feministarekin. Aholkularitza-, ikerketa-, prestakuntza- eta bide-lagun-zerbitzuak eskaintzen ditugu, arlo horretan proiektuak abiatzeko edo garatzeko. Halaber, agroekologiarekin lotutako proiektuak ere lantzen ditugu, esate baterako elikadura agroekologikoa txertatzea eskolako jangelatan.

Zuen webgunean, garrantzi handia ematen diezu kontakizunei.

Beharrezkoa iruditzen zaigu kosmobisioa aldatzea eta bestelako narrazioak eta azalpenak sortzea bizi dugun unea ulertzeko. Museoei eta kultur erakundeekin lan egiten dugu, iruditzen baitzaigu bestelako mintzaira batzuk –fikzioa, poesia, artea– baliagarriak direla kezkaigai ditugun auzi

guztiak komunikatzeko, gorputzetik pasatuta.

Bestalde, Trantsizioen Foroa guneko bozeramailea zara. Zer da?

Horrela esanda apur bat harroputza eman dezake, baina halako *think tank* txiki bat izan nahi dugu, erabaki-gu-neetan eta botere-espazioetan eragiten saiatzeko, hala nola instituzioetan, enpresetan eta mugimendu sozialetan



Niri ere gertatu zait. Eta dolu hori egin behar da: saldu zaigun aurrerapen materiala ezinezkoa dela onartzeko dolua

ere bai. Baina, lehenik eta behin, gai hauen guztien bueltan jardun nahi dugu. Argitalpenen bilduma bat daukagu, eta, adibidez, hirietan egin diren aldaketek zer ondorio ekarri dituzten edo zertan diren aztertu dugu. Orain dela gutxi txosten bat prestatu dugu, Europar Batasunak eta Espainiako Estatuak iragarri dituzten politika publikoek iraunkortasunean zer eragin erreal izango duten aztertzeko. Eta, hortik abiatuta, saiatzen gara politikoki eragiten udal-letan, estatu-politikan, unibertsitatean edo enpresetan.

Donostiako erdigunean gaude, hamabost egun barru hasiko da

uda, eta zuzenean landu ez duzun gai bati buruz galdetu nahi nizuke: turistifikazioa.

Ikaragarria da, hiri guztietan gertatzen ari da. Bartzelonako kasua da ezagutu dudun basatienean, itsas bidaldien iritsierarekin-eta. Baina Madrilén bizi izan nintzen azken hiru urteetan, aldaketa izugarria izan zen. Oso problematikoa da: batetik, lurralde baten zama-ahalmenak nola gainditzen diren, eta, bestetik, horrekin batera sortzen diren gentrifikazio-prozesuak, jendea bere auzotik kanporatzea, etxebizitzaren prezioa izugarri garestitzen da, sekulako desberdinkeriak sortzen dira, eta hiria jada ez da komunitatean bizitzeko leku bat. Hiriak parke tematiko bihurtzen dira, turismoaren zerbitzura. Gainera, petrolioaren gailurraren kontua aintzat hartuta, hiriaraino izugarri kalte-tetzen da, azkenean hiria eta bertako bizitza ekonomikoa, biztanleen bizia, turismoaren zerbitzura zuzentzen delako. Dinamika hori, hein batean behintzat, landa-eremuan ere ari da gertatzen. Landa-gentrifikazio larria gertatzen ari da, eta oso arriskutsua iruditzen zait. Esandako guztiaz gainera, ur eta garraio mordoak xahutzen da. Turismoaren industria, azken batean, beste estraktibismo bat gehiago bihurtu da, eta pila bat hazten ari da, gainera. ●



Olatu berria Eskoziatik?



IKER IRAOLA ARRETXE
EHU-KO IRAKASLEA ETA
PARTE HARTUZ IKERKETA
TALDEKO KIDEA

Denbora azkar pasatzen da, are gehiago pandemiaren eraginez bi urte hain geldo eta arraro bizi os-tean. Nicola Sturgeon Eskoziako lehen ministroak, ekain amaieran, iragarri zuen 2023ko urrian herrialdearen independentziari buruzko kontsulta berria egiteko asmoa duela, eta horrek garamatza ordurako aurreko erreferendumetik bederatzi urte pasata egongo direla konturatzeraz. 2014an eskoziarrek independentziari buruzko galdeketa izan zuten, eta hiru urte beranduago, 2017an, Katalunian izan zen erreferenduma, eza-guna denez eta jakina den erantzuna jasoz Espainiako Erresumaren aldetik. Bi bozketok, nolabait, independentzia eta sezesio nahiaren olatu berria osatu zuten Europako testuinguruan, eta nazio gatazkak indartsuak diren gainontzeko herrialdeetatik interes handiz begiratu genion uhin hari.

Euskal Herrian eragin handia izan zuen olatu hark, batez ere Kataluniatik etorritako bagak. Ez naiz erreferenduma eta elkartasunaz zehazki ari, baizik eta bozketa haietara iristeko bi herrialdeetan abiaturiko prozesuez eta berrikuntza teorikoez: independentzia justifikatzeko planteamendu berriak, *demosa* azpimarratzea nazioarekin batera, nazioa modu berriez eta irekiez zedarritzea, demokrazia eztabaidaren erdigunean ipintzea, eta abar. Euskal Herrian, testuinguru hartan, baikortasuna piztu zen nazio auziari zegokionean,

Hurrengo
hilabeteetan,
berriz ere, sezesio
prozesuak eta
independentismoak
pentsatzeko moduek
garrantzia
har dezakete

hemen bertan 2011tik aurrera gatazkak bizitako eraldaketari loturik. Hitzaldiak, eztabaidak, hausnarketak ugariak izan ziren euskal independentismoaren berrikuntzari buruz, eta Euskal Estatuaren kontzeptuak garrantzia eskuratu zuen.

Eztabaida eta ekarpen haietatik guztietatik, ondorio nagusia da, nire ustez, nazio identitatea, nazionalismoa nahi bada, ez dela ardatz bakarra independentziaz edo estatu berri bat sortzeaz ari garenean. Motorra denik ziur aski ezin da ukatu, baina motorra hori ulertzeko eta interpretatzeko moduak ugariak dira. Naziokide izateko erak, edo baldintzak, zein modu desberdinetan uler daitezkeen ikusi besterik ez dago. Areago, nazioaren eta nazionalismoa-

ren interpretazio horiek ugariak izatea indargune gisa ulertu beharko litzateke.

Esan dugun bezala, baina, eztabaida eta ekarpen berritzaile horiek ez dira hain berriak dagoeneko, eta, paradoxikoki, Euskal Herrian ekarpenok guztiz gureak egin gabe, edota ulertu gabe batzuetan, jarraitzen dugula iruditzen zait. Esaterako, nazionalismoa eta independentismoa, analitikoki bada ere, bereizi behar direla esaten dugunean, zertaz ari gara? Euskal Herriaren independentista espainiarrek ere bilatu behar direla esaten denean (zenean?) horren inplikazioak ulertzen al ditugu? Batzuetan, halako planteamenduetan sakondu gabe oraindik, haiekiko erreakzioak indar handia izan du Euskal Herrian. Indar handiegia garatu gabeko planteamendu batzuez ari garenean, nire irudiko.

Diskurtso 'berri' horiek, agian, ez dira Euskal Herriaren independentzia pentsatzeko eta teorizatze bide bakarrak izan behar, ezta nagusiak ere, baina horiek ere behar direla esango nuke. Hurrengo hilabeteetan, berriz ere, sezesio prozesuak eta independentismoak pentsatzeko moduek garrantzia har dezakete. Eskoziako eraginak nabaritu daitezke horretan, edota Irlandatik etor daitezkeen bestelako uhinenak, han ere mugimenduak gertatuz gero. Zein eragin izango duen horrek Euskal Herrian? Auskalo, baina gutxienez har ditzagun beste herrialdeetako berrikuntzak gozoz, beharra dugu eta. ●

Dogma



JUNE FERNANDEZ
KAZETARIA



PAULA ESTÉVEZ

Arantza Santestebanen dokumental autobiografikoa, *918 gau*, ikusi dut Topagune Feministan. *Spoiler* bat egingo dizuet: Santesteban kartzelan dagoenean konturatzen da gusturago dagoela preso sozialekin preso politikoeekin baino. Gizonezko gihartsuz inguratua agertzen da patioako argazki batean, eta onartzen du ondo sentitzen dela anabolizantez puztutako gorputz horien artean. Kartzelaren burbuilak perspektiba eman dio ohartzeko militantzia politikoa ere burbuila bat zela. Euskal presoan aldeko kontzentrazioen argazkiak bidaltzen dizkiote lagunek, pankartetako leloak irakurtzen ditu, eta jada ez dute asetzen.

Bereziki interesatu zitzaidan filmaren parte hori, aspaldi barrundatzen nabilen ezinegonarekin lotu dudalako. Feminismoa da mundua esplikatze, nire burua eta ingurua ulertzeko baliatzen dudana tresna analitiko nagusia. Aldiz, eguneroko gatazketan ohartu naiz leloak egia borobiltzat hartzearen mugez zein arriskuez.

Maitasunak ez du minik ematen

Matxiruloak sutara

Bollera da bide bakarra

Teresa Maldonado filosofia irakasleak eta militante feministak *Hablemos claro* (Argi hitz egin dezagun) saiakeran jarri dizkio nire ezinegonari hitz zehatzak:

“Azken garaietako hizkera feminista estereotipoz, klise linguistikoz eta egin-dako esaldiez gainezka dago. (...) Jada ez dira pentsamendu konplexu eta ñabartu bat artikulatzeko tresnak, hura argitu eta aberasten dutenak, baizik eta buruz errepikatutako kintinelak, konplexutasunik eta gaitasun kritiko izpirik gabeko sasi-pentsamendu baten soniketeak. Hori gerta daiteke dogmari kritika dogma bihurtzen denean”.

Lelo kategorikoek funtzio inportantea bete dezakete, baldin eta modu kontzientean, zuhurrean eta neurtuan baliatzen baditugu. Ekintza komunikatiboaren helburua argi izan behar dugu: pedagogia egin nahi dugu ala probokatu? Jendea gerturatu nahi dugu ala gatazka azaleratu? Besteen kontzientzia-zioa ala gure autoafirmazioa da xedea?

Maldonadok liburuan adierazi duen kezka bat da, hain zuzen ere, kostatzen zaigula erregistroa moldatzea. Alegia, hizkera berdina erabiltzen dugula barne-asanblada batean, hedabideetan edota doktoretza-tesi batean. Nikaragua-ko feministekin ikasi nuen komeni dela gure mezuak zabaltu aurretik burbuilaz kanpoko pertsonekin kontrastatzea.

Ez dezagun ahaztu bizipenak leloak baino askoz ere konplexuagoak eta kontraesankorragoak direla. Norma Váz-

quez psikologo feministari elkarrizketa egin nion *Pikara Magazinerako*, eta honakoa esan zidan:

“Iruditzen zait batzuetan feministok oso urrun gaudela emakumeen bizi-esperientzietatik. Diskurtsoa soberan daukagu eta kontaktua falta zaigu, baita gure bizi-esperientziarekin ere. Itxuraz oso ideia argiak eta zorrotzak dituzten feministak ikusten ditut, haien harremanetan korapilatzen direnak. Oso ohituta gaude kanpoko munduarekin borrokatzea eta ideia oso orokor batzuetatik abiatuta emakumeei gertatzen zaiena azaldu nahi izatera”.

Horregatik eskertu dugu ama feministok Adrienne Richen *Emakumeagandik jaiok* saiakera: amatasunari kritika feminista sutsuaren aurrean, instituzioa eta esperientzia bereizten dituelako (nahiz eta batak bestea zedarritzen duen). Hala, anibalentzia da Richek amatasuna definitzeko darabilen kontzeptu nagusia.

Ondo legoke esperientzia jakin bat gorpuztu barik gai izatea horren konplexutasuna antzemateko, besteen bizitzetara buruzko lekioak ematen ibili ordez. Dogmari dogma berriei erantzun baino, gaitasun kritikoa indartzea eta errealitatearen korapiloak, ertzak eta argi-itzalak onartzea. ●

Indar fisikoa



**AINHOA AZURMENDI
ECHEGARAY**
KIROL AHOLKULARIA
ETA EHU-KO IRAKASLEA

Sare sozialetan emakume batek adierazi du zer pentsatua ematen duela Sanferminetako txupinazoan gizon baino askoz emakume gutxiago ikus-teak. Espazio publikoaren okupazioaz hausnartzera gonbidatzen zuen mezuak, nola ez, hamaika gizon jantziren erantzun zurrinak jaso ditu, tartean, indar fisikoa hizpide. Antza, jende andana pila-tzen duen jaien hasierako ekitaldian edo entzierroan emakumeak ez egotekaren arrazoia indarra da.

Txakurra zahartzen ari da, eta atletismoko jaurtitzailea zen lagunak (emakumea) badaki makila ur ertzetik gertu botatzen ez badio, txakurra ez dela bila joango. Mutil ezezagun hura gerturatu zitzaion ia hark bota zezan nahi zuen, urrutirago botatzeko ahalmena baitzuen.

Gimnasioan, halterofiliako entrenamenduan, bi mutilek haien ariketak bukatu zain zegoen emakumea, pisua hartu eta altxatzen hasteko. Amaitu zutenean, pisua kentzeko laguntza behar zuen galdetu zioten; neskak berriz, beroketa egiteko pisu gehiago jarri behar zuela erantzun.

Ospitalean ingresatuta dauden gaitxoak alde batetik bestera eramaten lan egiten duen emakume kirolari bati haren lankide gizonarengatik lehentasuna adierazi zion pazienteak, bera ez zela-koan gai izango.

Etxeko atarian gurgildun aulkian dagoen bizilaguna topatu nuen haren zain-tzailearekin. Igogailua ez zebilen eta ezin zen etxera igo. Laguntzeko geratu nintzen eta justu bizilagun bat agertu zen, mutil gazteago bat. Bion artean altxatzeko modua adostu baino lehen, Urliari (beste bizilagun bat, mutila) deituko ote genion galdetu zidan. Hark ez zekien idazten duen honek aitaren zainketan zuen esperientzia, ezta bizitzan zehar kirolaren bitartez garatutako indarra zer nolakoa den.

Kasu horietan guztietan, histori-koki emakumeak diskriminatzeko erabili den argudio nagusia –gaitasun fisikoa– azaleratzeaz gain, matxis-moaren sustraian errotuta dauden aurreiritziak aurkitzen dira. Azken batean, emakume eta gizonen gorputza, gizarteko rolen sexu banaketaren oinarri gisa, sistema produktiboa eta erreproduktiboaren bereizketaren funtsa da. Beste modu batean esanda, espazio pribatu eta publikoan emakume eta gizonei egotzi zaizkien betekizunen zimendua.

Beraz, jai dugu XXI. mendean hainbat eremutan emakume gutxiago egoteko arrazoiak historia aurreko argudioekin azaltzen eta horien arabera jokatzeko jarraitzen badugu. ●

Estigma



**EVA PEREZ-PONS
ANDRADE**

Bilbon astero daude manifestazioak eta kontzentrazioak. Garaiaren arabera, ia egunero. Esango nuke ez dudala sekula ikusi horietako bakar batean hiesaren kontrako preserbatibo banaketarik aurtengo ekainaren 28ra arte: Barik txartela eramateko erabiltzen den zorroaren antzeko batean kondoi eta lubrikagarri bana, “eman iezaiozu itzuli bat sexuari” esaldiarekin atonduak biak. Kontrazalean, elkartearen eta Eusko Jaurlaritzaren logoak.

Ideia ikaragarria iruditzen zait kondoiak banatzea, are agerraldi publikoetan jendetza biltzen dela eta ia denok sexu-harremanak ditugula jakinda. Baina,

benetan ideia ona al da hiesaren kontrako ikusgarritasuna soilik LGTBI harrota-sunaren eguneko manifestazioan egitea, gai horren bueltan jasan dugun estigmatzarekin? Uste dut arduraz jokatu behar dugula egiten dugunarekin. Asmo ona ez da nahikoa. Berriz ere hiesari buruz kalean hitz egiten den bakanetan LGTBI banderak airean. Berriz ere instituzioak estigma horren sustapenaren atzean.

Edozeinek izan dezake sexu-transmisiozko gaixotasun bat, eta gizon heteroekin oheratzen diren lagunek kontatzen dutenagatik, “sexuari itzulia ematea” gizon heteroei tokatzen zaie nabarmenki, zentzu batean baino gehiagotan. ●

Aritmetika arazoak



MIKEL OTERO GABIRONDO
LEGE BILTZARKIDEA

Amaia Zubiriaren lekukoa hartuz, merezimendu osoz jaso zuen duela gutxi Joseba Tapia trikitilariak Donostiako Udalaren Adarra saria, euskal kulturari bizitza osoko ekarpena egin ostean. Trukean, kantu batzuk oparitu zizkigun. Hainbat plazatan kantu horiekin gorputza astindu izan eta gero, nekez lortu genuen ipurdia Victoria Eugeniako eserlekuei itsatsita mantentzea. Gozatu ederra. Etxerako bidean, ordea, kanta bat garunean iltzatu zitzaidan, begiztan; *Aritmetika arazoak*. Buruan, letra bueltaka: “Zenbat arazo ditu gaur Euskal Herriak? Askok xamar oraindik, balitu erdiak!”.

Hurrengo egunetan, kanta burutik kendu ezinik, nire eguneroko lan, kezka eta obsesioekin nahastu zitzaizkidan “Aritmetika arazoak”. Adierazle apur batzuk begiratu gero, arazo aritmetiko potoloak ageri zaizkigu gurean. Energiaren esparruan, berriztagarriak ahoan, baina Hego Euskal Herrian ez dira %15era iristen (ehuneko bakoitza igotzeko ehunka MW instalatu beharko genituzke) eta energiaren %85a kanpotik dator. Elikagaiei begiratu gero, subiranotasuna jomugan, baino gure

Guztiontzako
gutxiengoak
bermatuko dituen
aberastasun banaketa
erradikal baterako
ofentsiba politikoa
antolatzea dagokigu

plateretara iristen direnak, batz besterik, 3.000 km egiten dituzte. Ekonomia zirkularra ere hizpide, baino gure ekoizpen makineriak, urtero, planetatik hartutako 80 milioi tona material berri behar ditu, %70 kanpokoak. Horieta, urtero 20 milioi tona baino gehiago atmosferara bidaltzen ditugu (gure ekoizpen nagusia, pisan, CO₂a da) eta 2 milioi tona baino gehiago zabortegetara botatzen ditugu.

Gure aztarna ekologikoak ongi laburbiltzen ditu datu kezagarri horiek; hau da, gure ongizate erdua eta kontsumo

maila mundu mailan hedatuko balitz, bi planeta eta erdi baino gehiago beharko genituzke. Eta, noski, bakarra dago. Orain arte, besteei dagozkien baliabideak erabiliz egin dugu gure bidea. Beste herrialdeei eta datozen belaunaldiei dagozkienak, hain zuzen.

Finean, Euskal Herri iraunkorra nahi eta behar bai, baino iraunkortasunaren aritmetikatik urrun gaude. Jarduera humanoak, oro har, planetaren muga biofisikoekin talka egin eta sorturiko anabasa ekologikoaren lehen trumoi hotsak sentitzen hasi garen honetan, gure metabolismo sozioekonomikoaren dimentsio material erraldoiari premiaz erreparatu beharrean gaude, baliabide gutxiagoko mundu baterantz goaz eta. Ortzi mugan ageri den militarismo harraparian ez badugu murgildu nahi, muga ekologikoetara (ber)egokitzea dagokigu. Horretarako, guztiontzako gutxiengoak bermatuko dituen aberastasun banaketa erradikal baterako ofentsiba politikoa antolatzea dagokigu, beti ere argi izanik baliabideen xahuketa garaia amaitu dela. Bi hitzetan, austerizidioaren aurkako austeritate berri bat. Nahi bada, deitu aritmetika ekologikoa. ●



“Gure haragia ekologiko gisa ziurtatzeak balioa gehitzen dio, oso atsegina da eta jendeak eskertzen du.”

—
IGNACIO SUESCUN
Abeltzaina, PETILLA ARAGOI

ETORKIZUNA EKOLOGIKOA DA aurrera goaz!


Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua


UNIÓN EUROPEA
Fondo Europeo Agrario de Desarrollo Rural


cpaen.org
navarraecologica.org

CPAEN
NNPEK
EKOLOGIKOA



Alimento Ecológicos
de Navarra

Bost galdera (arraro) kale erabileraren neurketari jarriak



TXERRA RODRIGUEZ
SOZIOLINGUISTA ETA HIZKUNTZA
AHOLKULARIA EMUN-EN

2021eko kale erabileraren datuak plazaratu dituzte orain dela ez asko –ikusi alboko koadroa–. Horren inguruko jardunaldia ere egon zen Bilbon eta, goizean behintzat, han izan nintzen. Han entzundakoetatik –eta irakurrikotik edo nik zer dakit nondik–, bost galdera arraro –ez dira denak nireak, eh?, kopiatzea zilegi da mundu honetan–:

Baga: zergatik da adin berekoen artean erabilera baxuagoa? Adinkidetatsunak zerikusia al du hizkuntza ohituretan?

Biga: orain dela urte batzuk erabilera esanguratsua izateko atalasea ezagutzaren %30aren bueltan zegoen. Gaur egun, oster, %40aren bueltan. Hortik behera, erabilera zeharo txikia da. Zergatik igo da atalasea? Eta, igotzen segituz gero, non jarriko da atalasea? Ezagutzaren unibertsalizaziorantz doazen guneetan zer gertatuko da?

Higa: emakumezkoak dira adin-tarte eta lurralde gutxietan erabile-

ra altuagoa dutenak (adinekoetan izan ezik). Zergatik lotu dira emakumezkoak euskarara? Edo, beste era batera esanda, zergatik lotu dira emakumezkoak euskarara gizonetzkoak baino gehiago?

Laga: bi herriren arteko alde-raketa aurkeztu zitzaigun jardunaldian. Biak eskualde berekoak, ezagutza tasa oso antzekoa eta erabilera diferentea. Alde hori esplikatze faktoreen artean, herriaren bizitasuna aipatu zen. Bizitasunak eragina al du hizkuntza ohituretan? Nortasun markatuko herrietan erabilera altuagoa al da?

Boga: kale erabileran asko begiratu zaio orain arte erabilerari eta gutxi kaleari. Badirudi begirada aldatzen hasi dugula. Kaleak, oro har eta salbuespenak salbuespen, bizi duen gainbehera kontuan hartuta, konparatzeko modukoak dira orain dela urte batzuetako neurketak eta oraingoak?

Bost galdera arraro eta erantzunik ez. Erantzunak zirriborrazeko ikerketa mikro eta makroei ekin behar diegu, goiz ala berandu. ●

Euskararen erabileraren kale neurketa 2021

1989tik neurtzen du karriketan euskararen erabilera Soziolinguistika Klusterrak, eta azken emaitzaren arabera, ezer gutxi aldatu da 2016tik 2021 era. Euskararen kale erabilera egonkor mantentzen dela erakutsi du azken ikerketak, eta azpimarratu dute hortik ateratzeko eta hizkuntza biziberritzeko beharrezkoa dela “indarberritze sakona”. Alegia, “egokitzapenak” eta “berrikuntzak” ezarri behar direla, besteak beste, hizkuntza politikan eta euskalgintzako erakunde eta mugimenduen jardunetan.

BABESLEA:



Lezoko
Unibertsitateko
Udala

UDAN EUSKARAZ *Blai!*

Puerto Rico

Historiako koloniarik zaharrenaren oihua

Karibeko irlako herritarrek bost mende daramatzate era guztietako zapalkuntzak jasaten: Espainiaren kolonia izatetik AEBen kolonia izatera igaro ziren duela 124 urte, uztailaren 25ean. Halere, puertorricarrak ez dira inoiz isilik gelditu, eta mendekotasuna borrokatzen jakin dute. Nahiz eta borroka horietako askotan ezintasuna gailendu zaien, garaipen esanguratsuak ere lortu dituzte, 2019ko uztailaren 25ekoa, kasu: uhartearen ia heren bat mobilizatu zen Ricardo Roselló gobernadorearen aurka, eta boteretik botatzea erdietsi zuten. Argi dago, beraz, uztailaren 25a gogoratzeko data dela Puerto Ricoko historia konplexuan.

 LEIRE ARTOLA ARIN

Duela hiru urteko uztaillean nazioartean sona izan zuen Puerto Ricok -kolono espainolak iritsi aurretik Borinken deiturikoak-, batik bat Residente, Bad Bunny eta Ricky Martin abeslari ezagunek aurpegia jarri zietelako orduko Ricardo Roselló gobernadorearen aurkako protestei. Bi astez bete zituzten kaleak milaka herritarrek, “*Ricky renuncia*” (Ricky, dimititu) oihukatuz eta kantatuz. Gutxi ezagutuko du Bad Bunnyren alde hau, baina honelaxe kantatu zuen Residenterekin eta iLe-

rekin eginiko *Afilando cuhillos* (Labanak zorrotzuz) kanta San Juan hiriburuko kaleetan: “*Arranca pal carajo y vete lejos, y denle la bienvenida a la generación del yo no me dejo*”. (Zoaz pikutara, zoaz urrutira, eta eman ongietorria makurtzen ez den belaunaldiari). Urrutira ez, baina bidali, bidali zuten Roselló.

Hain zuzen, “makurtzen ez den belaunaldiak” urteak zeramatzan PNP Alderdi Progresista Berriaren gobernuaren jarduna kritikatzeko, harik eta 2019ko uztailaren 13an guztiak eztanda egin

zuen arte. Roselló eta beste gizon boteredun batzuen arteko Telegrameko elkarrizketa luze bat filtratu zuen Centro de Periodismo Investigativo Puerto Ricoko komunikabide independenteak. Era guztietako mezu misogino, homofobo eta diskriminatzaileak ziren, eta uharteko politikari, artista eta herritarren kontura barre egiten zuten; Maria urakanaren ondorioz 2017an hil zirenei ere trufa egiten zieten. Azpimarratzekoa da Harvard Unibertsitatearen ikerketa batek kalkulatu zuela 4.645 pertsona hil





CARLOS GIUSTI, AP

2019KO UZTAILEAN milaka lagun kalera atera ziren Ricardo Rosellóren dimisioa eskatzeko.

zirela urakan horren eraginez, besteak beste, uharteko gobernuaren eta AEBen (Donald Trump presidente zela) kudeaketa eskasagatik.

Gainera, mezuak filtratu baino hiru egun lehenago hainbat gobernakideren aurkako ikerketak zabaldu zituzten, ustelkeria leporatuta. Puertorricarrek gehiegizkotzat jo zituzten gertakariak, eta kalera atera ziren gobernadorea kanporatzeko helburuz. Uztailaren 22an herrialde osoa geldiarazi zuten eta, hango hedabideen arabera, ia milioi bat la-

gun elkartu ziren hiriburuan, Puerto Ricoko zein LGBTBI+ kolektiboko banderak eskuetan zituztela. Askotariko ideologia eta adineko jendea bildu zen, eta oinez, bizikletan, autoan edota piraguan heldu ziren gobernadorearen egoitzara. Rosellóren dimisioa ospatu zuten orduan, baina, hiru urte geroago, PNP alderdiak segitzen du boterean, eta ustelkeria ez da desagertu. Bada, aurten ere hainbat ekintza antolatu dituzte urteurrenaren kariatara, baina zaila da orduko hura errepikatzea.

AHOTSA BAI, ESKUBIDEAK EZ

1898ko uztailaren 25ean Espainiak AEBen aurkako gerran irla "galdu" zuen, eta 54 urte geroago, 1952ko uztailaren 25ean, Puerto Rico AEBen Estatu Libre Elkartua (ELA, gaztelerako sigletan) bilakatu zen, eta Nazio Batuen Erakundeak erabaki zuen nahikoa autonomia ematen ziela horrek, eta, beraz, kolonia zirenen zerrendatik atera zuten. Ospatzekoa, hortaz. Errealitatea, ordea, oso bestelakoa da. Gobernu autonomoa dute, kiroletan euren selekzioa dute, bai-

**'SE ACABARON LAS PROMESAS'**

taldeak PROMESA legea gaitzetsi eta independentzia aldarrikatzen du.

**Roselló
gobernadorearen
dimisioa ospatu zuten
orduan, baina,
hiru urte geroago,
PNP alderdiak
segitzen du boterean,
eta ustelkeria
ez da desagertu**

na ez da inoiz deskolonizazio prozesurik izan, eta ELA izateak eskumenak baino betebeharrak gehiago eman dizkie. Finean, AEBen kolonia izaten segitzen du, eta Puerto Ricoko Gobernua Washingtonen txotxongiloa besterik ez da. Konplexua da egoera, baina laburbilduz, hauxe da: boricuek (Puerto Ricoko herritarrek) estatubatuar hiritartasuna dute, eta haien presidentea Joe Biden da, baina ez dute hura hautatzeko hauteskundeetan parte hartzeko eskubiderik. AEBetako Ordezkarien Ganberan bozeramaile bat dute puertorricarrek, ahotsa duena baina botorik ez. Bitxikeria gisa, batzuek gogoan izango dute 2003an Ibarretxe Planak Puerto Ricoko ereduaren ezaugarri batzuk proposatu zituela Euskal Autonomia Erkidegoarentzat.

Halaber, Jones legea edo kabotaje legea deritzona dute, zeinak derrigortzen baitie Puerto Ricora doazen ontzi guztiak AEBetakoak izatea, eta inportazioari begira prezioak izugarri garestitzen ditu. Amnesty Internationalen arabera, biztanleen %47 pobrezian bizi da. Krisia sakona eta askotarikoa da: ekonomikoa (mendekotasun handia dute beste lurraldeekiko), klimatikoa (gero eta urakan eta lurrikara latzagoak dituzte), politikoa (ustelkeria da nagusi) eta soziala (pobrezia, indarkeria, feminizidioak,

eta droga kontsumoa). Ana Teresa Toro idazle eta kazetari puertorricarrak gogorarazten du kolonia izaera dela aurrera egitea oztopatzen diena: "Koloniak ez dira aurrera egiten duten ala loratzen diren tokiak; koloniak dira toki batzuk zeinetatik atera egiten dituzten gauzak, non indarkeria esplizitua eta inplizitua dagoen".

EZ DUTE PROMESARIK NAHI

Kolonia izaera agerian uzten duen beste lege bat da PROMESA legea (Puerto Rico Oversight, Management and Economic Stability Act, ingelesezko sigletatik), 2016an Barack Obamaren gobernuak abiatu zuena, Karibeko uhartearen "krisi ekonomikoa kudeatzeko". Alegia, Puerto Rico porrot ekonomikoan zegoen, 66.000 milioi euro inguruko zorra ordaindu ezinik, eta Washingtonetik erabaki zuten hori konpontzeko Kontrol Fiskalerako Batzorde federal bat bidaltzea; batzorde horrek Puerto Ricoko Gobernuak eta Parlamentuak baino eskumen eta botere gehiago ditu herrialdeko ekonomian. Plan fiskala 2026. urtera arte dago martxan, eta uharteko hainbat eragilek salatu dute herritarrek murrizketa ugari jasaten ari direla PROMESA legea dela-eta, hezkuntzan, batik bat.

Ahots ugari altxatu dira Kontrolerako Batzordearen “inposizioaren” aurka, eta, besteren artean, salatu dute gobernuaren urte luzetako ustelkeriaren ondorioak herritarrek ordaindu behar dituztela orain. Se acabaron las promesas (Amaitu dira promesak) talde independentistan artikulatu dira. 2019ko uda hartan ere “amaitu dira promesak” leloekin Puerto Ricoko banderaren zuri-beltzezko bertsioak altxa zituzten airera, PROMESA legearen eta kolonizazioaren aurkako ikur bilakatu direnak, hain zuzen.

2017ko irailean Irma eta Maria urakanek uhartea suntsitu zuten, eta etxea galdu ez zutenek argindarra galdu zuten, horietako askok zenbait hilabetetarako. Bada, haizete bortitz horiek haize berriak ere eraman zituzten irlara, eta puertorricarrek elkarlan eta antolaketa erakustaldia egin zuten; auzolanaren bidez altxatu ziren. Ez hori bakarrik, orduko hartan gobernuari eta AEBei egin zizkieten kexek iraun zuten, eta askok egun ere diraute. Puerto Ricoko aditu eta analisten esanetan, 2019an Roselló boteretik botatzea ez zen egun batetik bestera gertatu, baizik eta azken urte horietan piztuta zeuden hainbat borrokaren ondorio izan zen, horien artean unibertsitateko ikasleenak. Pospoloak piztu zituzten argidarraren faltan, eta azkenean sua hauspotu zuten.

ALDAKETA GARAIAK

Gobernadorea kargua uztera behartu zutenean esperantza mezuak zabaldu ziren, aldaketarenak, eta 2020ko azaroko hauteskunde orokorrak horren isla izan ziren. Ramon Rosario Luna Puerto Ricoko Unibertsitate publikoko irakasleak “anti-neoliberalismoaren indar” gisa definitu zituen, *80 grados* agerkari digitalean eginiko analisian. Ordura arteko bipartidismo liberalista (PNP eta PPD) indarra galtzen ari dela ikusi zen. PNP Alderdi Progresista Berriko Pedro Pierlusik irabazi zituen bozak, baina historian bozka gutxien jaso dituen gobernadorea da, eta parlamentuan gutxiengoarekin ari dira gobernatzen. Bigarren indarra da PPD Alderdi Popular Demokratikoa izan zen, baina alderdiaren historian boto gutxien jasota. Kontrara, nabarmen hazi ziren MVC Herritarren Garaipenerako Mugimendua (2019ko protesten ondoren sortua) eta PIP Alderdi Independentista Puertorricarra (2016an %2 izatetik 2020an %13 izatera) alderdi ezkertiar eta anticolonialisten aldeko botoak. Dena dela, parlamentuan eta senatuan MVCK bi ordezkari eta PIPEk bakarra dituzte.

Ezin aipatu gabe utzi hauteskundeetako parte hartze urria. Azkenengo aldi guztietan parte hartzea %80ren bueltan zebilen, eta azken bietan agerikoa izan da jaitisie-

NOR DA BORICUA?

Puerto Rico Karibeko irla txiki bat da, 9.104 km koadroko azalera duena (Nafarroa Garaiak 10.391 km koadro ditu). Bertan bizi dira 3.285.874 boricua, 2020ko datuen arabera. Baina beste 6 milioi diasporan bizi dira. Gehienek AEBetara migratzen dute, uharteko pobreziatik ihesi. Azken hamarkadan urtero 75.000 pertsonak utzi dute jaioterria, UCLA unibertsitateko ikerlan baten arabera.

Zaila da itxuragatik boricua bat identifikatzen, urteetako historiaren poderioz nahasketa handia izan dutelako. Beltzak, zuriak eta mestizoak: gazteleraz, ingelesez edo bien arteko nahasketan hitz egiten dute, irlako doinu bereziarekin. Jatorrizko herria tainoa dute, eta haiek jarri zioten Borinken izena lurraldeari; hortik boricua hitza. Baina kultura hura desagitera iritsi ziren 1493an Cristobal Colon eta beste inbadi-tzaileak, eta San Juan Bautistaren Irla gisa izendatu zuten.

Lehen aldiz Juan Ponce de Leon finkatu zen han, 1508an, eta lehen gobernadore izendatu zuten espainolek. Hain zuzen, aurreko konkistatzaile horren estatua eraitsi dute hiriburuko plazatik ekinztzaile batzuek, Espainiako Felipe VI.a erregearen bisita zela-eta, Puerto Ricoren askapena aldarrikatzeko. Irlaren gaineko kontrola hartu zuen, Agüeybana kazike nagusia alboratuta, eta tainoak menderatzen hasi zen. Indigenak hiltzen joan ziren, batik bat espainolek eramandako gaixotasunengatik. Bizirik iraun zutenak espainolekin nahasten joan ziren, eta adituen arabera, asimilazio prozesua gertatu zen. Taino hizkuntza desagerrarazi zuten. Indigenen faltan, Afrikatik esklabo gisa hartutako pertsonak eramaten hasi ziren irlara. Haiek ere euren kultura eraman zuten Borinkenera, eta, mende batzuk geroago, estatu-batuarrak ere euren arrastoa utzi zuten. Horregatik, esaten da denon nahasketaren fruitua direla egungo boricuak. Historiako koloniarik zaharrenaren seme-alabak.



1954an militante nazionalista batzuek Capitolioari eraso egin zioten, Puerto Ricoren askapena eskatzeko.



ROBINSON CAMACHO RODRIGUEZ

HONDARTZA PUBLIKOAK enpresa pribatuek erostearen aurkako protesta bat.

ra: 2016an %55,45ekoa izan zen, eta 2020an %55,02koa.

Gainera, botoek erakutsi dute mugimendu sozialetan atzematen zen beste joera bat: independentziaren aldeko ahotsak babesa irabazi dute. Izan ere, AEBen kolonia izanik, horren aurrean hiru jarrera nagusi bereizten dira: Estatu Libre Elkartuaren (ELA) egungo ereduarekin segi nahi dutenak (PPDk ordezkatua), AEBetan guztiz barneratu eta 51. estatua bilakatu nahi duten *estadistak* (gobernatzan ari den PNPk ordezkatua), eta independentzia nahi dutenak (MVC eta PIP, esaterako). Zalantzarik gabe *estadistek* dute indarrik handiena, eta independentziaren aldekoak dira gutxiengoa.

ERREFERENDUM EZ LOTESLEAK

Puerto Ricoko Gobernuak hainbat erreferendum ez lotesle egin ditu herrialdearen autonomiari buruz. ELAren aukera gailendu zen 1967, 1993 eta 1998an egindako plebisizituetan. 2012an, berriaz, lehen aldiz 51. estatu bilakatzearen aukerak irabazi zuen bozkatzaileen %60 ingururen babesarekin; independentziak %5 soilik lortu zuen. Bost urte

Puertorricarren presidentea Joe Biden da, baina ez dute hura hautatzeko hauteskundeetan parte hartzeko eskubiderik

geroago, 2017an, beste galdeketa bat egin zuten, baina independentistek eta ELAren aldekoek boikoterako deia egin zuten, “zentzugabea” zela iritzita; %23ko parte hartzea izan zuen. Ondorioz, %97k bozkatu zuen estatuen alde. Azkenik, 2020an beste saiakera bat egin zuten, oraingoan bi aukera bakarrik eskainita: “Estaditatea bai ala ez?”. %54,72ko parte hartzea izan zuen, eta hautesleen %52,5ek baiezkua eman zuen eta %47,5ek ezezkoa. Esanak esan, erreferendumak ez dira lotesleak, eta AEBek interes gutxi erakutsi dute auzia konpontzeko. Komeni zaie Puerto Rico bezalako lurralde pobretu bat 51. estatu gisa hartzea? Eta, bestela, abantaila erraz eta merkeak ematen dizkien lurraldea guztiz askatzeko? Momentuz, badirudi statu quoari heltzeko asmoa duela Washingtonen.

INDEPENDENTZIARAKO OIHUAK

Bost mende baino gehiagoko mendekotasuna jasan duten arren, ez dira otzanak izan boricuak. Kolonoen aurka ere zenbait borroka egin dituzte, bai espainolen kontra bai estatubatuarren kontra. Lehen independentzia saiakera

Lares-eko Oihua izan zen, 1868an Espainiako inperioaren aurkako altxamendu armatua. Gutxienez 400 laguneko taldea izan zen iraultzaren protagonista, eta Puerto Ricoko Errepublikaldarrikatu zuten, bandera boricua lehen aldiz jarritz (hor oinarrituta egin zuten oraingo bandera). Halere, espainolek saiakera errepresibitu zuten eta 800 bat “susmagarri” atxilo hartu.

Pasa den mendean independentziaren aldeko borroka indarra hartu zuen berriro, langile klasearen borrokarekin batera; Pedro Albizu izan zen bultzatzaileetako bat. Hori ikusita, 30. hamarkadatik aurrera AEBetako Gobernuak errepresioa erabili zuen nazionalismoaren aurka: militante eta politikoen jazarpena, espetxeratzeak, eta hilketak ere bai. Adibidez, 1937an Ponckeko Sarraskia egin zuten, AEBetako Gobernuak aginduta: poliziek 20 nazionalista hil zituzten irlaren hegoaldeko herrian. 1948an legez zigortu zuten independentzia defendatzea, han ere Mozal Legea deitu dutenaren bidez, eta, besteak beste, Albizu kartzelaratu zuten beste behin. AEBetako Poliziak milaka lagun zeltatu eta haien informazioa karpitetan bildu zuen, independentzia bultzatzearen “susmagarri” zirelako, eta gaur egun arte iraun du “karpeteoa” deitzen dioten praktikak.

1950ean beste altxamendu bat egin zuten: Jayuyako Oihua. Blanca Canales militanteak Puerto Ricoko Errepublikaldarrikatu zuen uhartearen mendialdeko herri horretan, eta lehen aldiz jarri zuen jendaurrean orain herrialdeko bandera gisa ezagutzen duguna (debe-katuta egon zen urte luzez). Polizien eta militanteen artean tiroketa izan zen, eta zauritu ugari eta hiru independentista hildako utzi zituen; atxilotuak kartzela zigor luzeetara kondenatu zituzten. Beste saiakera frustratu bat independentziaren historian.

Estatu Libre Elkartuak urak baretzeko balioko zuelakoan zeuden, baina oso oker zeuden. Bi urtera, ELA salatzeak eta deskolonizazioa aldarrikatzeko lau aktibista AEBetako Kongresura armekin sartu eta eraso egin zuten. Ez zen hildakorik egon, baina espetxe zigor luzeak jaso zituzten militanteek. Errepresioaren aurrean, beste jauzi bat eman zuten 1970eko harramaldian, eta talde armatuetan antolatu ziren independentziaren eta sozialismoaren defendatzaileak: Los Macheteros (Ejército Popular Boricua) eta FALN (Askapen Nazionalerako Indar



JUAN PONCE DE LEÓN

konkistatzailearen, estatua eraitsi zuten aktibista batzuek urtarrean.

Armatuak). Ekintza ugari egin zituzten eta hainbat pertsona hil, Borinken askapenaren izenean. Besteren artean, Oscar López Rivera izan da FALNeko pertsona ezagunenetako bat nazioartean. 35 urte kartzelan igaro zituen, harik eta Barack Obamak 2017an indultua eman zion arte, Lópezek 74 urte zituela. Espetxetik atera eta gutxira euskal preso politikoei elkartasun mezua helarazi zien.

HAMAIKA ALDARRIKAPEN

Puertorricarren borroka ez du etenik, eta kaleak bizi-bizirik daude. 2019ko udak indarberritzeko balio izan zien, eta hamaika taldetan banatuta herritarrek segitzen dute historiako koloniarik zaharrenaren zapalkuntzei gogor egiten. Azken urtean, oro har, pribatizazioaren aurka ari dira ozen: hezkuntzaren, osasungintzaren, energiaren eta lurren pribatizazioari aurre egiten, batez ere. Izan ere, irlako argindarra LUMA enpresa pribatuaren esku utzi zuten 2021eko ekainean, eta herritarrek ez daude konforme. Hezkuntzan, goi mailako ikasketak egitea gero eta poltsiko gutxiagoren esku dago. Lurren pribatizazioari dagokionez, biztanleen kexu nagusia da hondartzak pribatizatzen ari direla, turismora bideratutako negozioak erosten ari direlako lur publiko horiek; hondartza bat baino gehiago okupatu dituzte azken urtean aktibistek.

“Makurtzen ez den generazioa” zabalitzen ari den mezua antirperialista

da, eta “Puerto Rico ez dago salgai” ozen gogorarazten diete irlara negozio merke bila doazen enpresari estatubatuarrei eta europarrei. Zeren, batzuentzat Karibeko oporraldiko paradisua dena, besteentzat eguneroko bizitokia baita, krisiaren ondorioz gero eta bizigarritasun zailagoa duena.

Honela kantatzen du Residentek *Hijos del Cañaveral* abestian, bere herriari omenaldia eginez: “*Lo nuestro no hay nadie que nos los quite/ Porque por más nieve que tiren, aquí la nieve se derrite*” (Ez dago geurea kenduko digun inor/ Zeren nahiz eta elur asko bota, hemen elurra urtzen da). “*Aunque siembren las raíces como les de la gana/ Los palos de guanabana no dan manzanas*” (Haiek nahi dituzten sustraiak landatuta ere/ Guanabano adarrek ez dute sagarrik ematen). ●



“ ”

Ilusio handiena Parisera joatea da

Iñigo Llopis, igerilaria

Iñigo Llopis igerilari donostiarrek hiru domina irabazi zituen 2019 eta 2022ko Munduko Txapelketetan, eta 2021eko Tokio Paralinpiar Jokoetatik zilarra ekarri zuen etxera. Konporta Kirol Elkartearen aritu ondoren, Basque Team klubean dabil gaur egun. “Gipuzkoan maila handia dago” esan digu, igeriketa egokituari buruz galdegitean.

 **MADDI VIANA ZUBIMENDI**  **IÑIGO LLOPISEK UTZIAK**

Nola hasi zinen igeriketan?

Nik txikitatik elbarritasuna neukan bai eskuineko besoan, bai eskuineko hankan. Biak dauzkat pixka bat motzagoak. eta eskuineko eskuan bi behatz bakarrik.

7-8 urterekin hanka hori apurtu nuen atezain bezala futbolera jokatzeko. Eba-kuntza egin zidaten eta hasieran igerian hasi nintzen pixka bat, errehabilitazio modura gomendatu zidatelako medikuak. Momentu hartan entrenatu besterik ez nuen nahi, eta futboleko jokatzera ahalik eta azkarren bueltatu. Nire lehenengo igeriketa txapelketan parte hartu nuenean asko gustatu zitzaidan, eta horrela hasi nintzen, pixkanaka, lehendabizi Gipuzkoa mailan lehiatzen, gero Euska-

din, eta ostean Espainia mailan. Txapelketa gero eta garrantzitsuagoetan parte hartzen nuen eta, gero eta gehiago gustatu zitzaidan. Nire kirola aurkitu nuen.

Lehia handia dago Gipuzkoan?

Lehia baino maila handia dago. Esan beharra dago, hemen beti eduki dugu eredu Richard Oribe. 25 urtez egon da maila goren gorenean. Gure taldean badira beste igerilari batzuk Joko Paralinpikoetan egon direnak. Beti egon da norbait maila altukoa. Orain ni nago, baita Nahia Zudaire ere, Joko Paralinpikoetan egon gara biok. Aurretik egon ziren Ander Romarate eta Ana Rubio.

Euskadi mailan gipuzkoarrak ibiltzen

gara, igeriketan behintzat denak gipuzkoarrak garelako. Espainian badago beste igerilari asko, selekzioko kideak direnak. Maila oso altua da, aurten erreleboak eduki ditugu eta hor ikusi da jende ona dagoela eta emaitzak lortu ditugula.

EAEn zirkuitu asko daude?

Igeriketa egokituari ez daude txapelketa asko. Baina txapelketa batzuetan elbarritasuna ez daukaten kirolariarekin aritzen gara. Ahal dugun txapelketa guztietan parte hartzen dugu. Ondoren Espainiako txapelketak daude, urtean bi antolatzen dituzte, bat neguan eta bestea udan. Horiek dira guretzat garrantzitsuak hasieran. Gero, nazioarteko txapelketetan pentsatzen hastean, gutxieneko markak zeintzuk diren eta begiratzeari ekiten diozu.

Klubek laguntza handia eskaintzen dizuete?

Guk zortea dugu, Basque Team-eko beka-dunak garelako. Laguntza ekonomikoa ematen digute, instalazioak era-biltzeko laguntza, fisioterapeuta edo nutrizionista... Hainbat zerbitzu eskaintzen dizkigute, ez soilik ekonomikoa. Hori oso garrantzitsua da, errendimendu altuko kirolean batez ere.



Zeintzuk izan dira zuretzako sostengurik handienak?

Batez ere etxekoak, familia eta entrenatzailea. Entrenatzailea eta biok beti egon gara buruz buru entrenatzen. Harreman oso ona daukagu, eta ez soilik entrenatzeko, edozer gauzari buruz normaltasunez hitz egiteko ere bai.

Oso garrantzitsua da entrenatzai-learekin ongi konpontzea. Gauzak ez direnean ondo ateratzen, sentitzen duzuna, zer pentsatzen duzun, aldaketaren bat behar baduzu edo, hari lasai esateko. Eta hark zuri azaltzeko entrenamendu mota ezberdinen zergatiak eta abarrak. Egia da ni uretan egoten naizela eta bera kanpoan, baina elkarlanean gaude, ahalik eta gehien egiten, emaitza garrantzitsuak lortzeko.

Zein modalitate duzu gustukoen?

Bizkar-igeriketa, dudarik gabe. 100 metroko proba. Hor sentitzen naiz erosoan, eta emaitza onak ematen diz-

kidan modalitatea izanda, konfiantza hazi egiten zait.

Bakoitzak bere gustuak ditu: crawl-a, tximeleta, bizkarka... Entrenamenduetan crawl da gehien egiten dena, oinarria delako. Gero, intentsitatea jartzeko garaian gustuko den estilo edo proba horretan zentratzen da bakoitza.

Bi Paralinpiar Jokotan parte hartu duzu, nolakoa izan da esperientzia?

2016an Rion aritu ginen, eta pixka bat arraroa izan zen. Ez nuen sartzeko gutxieneko marka lortu. Uda zen eta oportetaren nengoen ez nintzelako sailkatu. Baina errusiarrak dopinagatik kanporatuak izan ziren eta orduan haien hutsunea betetzeko hainbat kirolari deitu zituzten, horietako bat ni. Azkenean Riora joan nintzen eta kirol maila oso ona ez erakutsi arren, esperientzia izugarria izan zen: joko olinpiko batzuk ezagutzea eta gero ikustea oinarri ona

Igeriketaren txinparta

Iñigo Llopis kasualitatez iritsi zen igeriketara. Txikitan hainbat kirol egiten zituen, hala nola eskubaloia, saskibaloia eta futbola. Femurreko lesio bat funtsezkoa izan zen igerilekura salto egiteko. S8 kategorian lehiatzen da uretan.

Ibilbidea hasi zuenetik, Llopisek ez dio igeri egiteari utzi. Bere lehen dominak Espainiako txapelketetan lortu zituen, eta horrek txinparta piztu zion diziplinan sakontzeko. Horrela eman zituen bere lehen urratsak, Espainiako eta Europako txapelketetan, besteak beste, garaipen eta postu onak lortuz.

Bere garaipenen artean honakoak daude: Europako txapelketetan zazpi domina, Munduko txapelketetan hiru eta Tokioko Paralinpiar Jokoetan bat.

izan zela Tokioko jokoetarako. Batez ere banekielako zer zen eta emaitzei begira gehiago eskatzen hasi nintzaiolako neure buruari.

Tokion oso ondo aritu nintzen. Etsaiak ezagutzen nituen eta banekien domina lortzeko borrokan egon nintzeela bizkarkako 100 metro proban. Asko exijitu nion neure buruari. Baina Joko olinpiko batzuetan domina lortzeko ilusioa hain handia zen, ez zela urte zaila izan. Proba hasi aurretik sentsazio onak nituen eta domina lortzeko kapaz ikusten nuen neure burua. Zilarrezko dominarekin oso-oso pozik nago.

Profesional izaten jarraitzeko asmoa duzu?

Bai. Hori oso argi dut. Orain Parisera begira nago. Pariseko Jokoetara iristea gustatuko litzaidake eta gero ikusiko dugu nola doan dena.

Olinpiadez gain Europako eta munduko txapelketak daude. Emaitzen araber, Espainiako Batzorde Paralinpikoak diru-laguntzak eta beste zerbitzu asko eskaintzen dizkizu. Gainera guk (Euskadin) Basque Team edukitzeko zortea dugu, laguntza handia ematen





**ENBALAJEAK
BILTEGIRATZEA ETA LOGISTIKA
ZERRA ETA ERAIKUNTZA**



**25 urte baino gehiago paketatze
industrialaren sektorean**

Jauregi auzoa, 75
Hernani (Gipuzkoa)
☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com
mjm@inakibereziartua.com

du. Horrekin oraintxe bertan igeriketaz bizitzeko kapazak gara, igeriketan %100 jardun naiteke.

Oroitzapen politak ditut, gertukoekin disfrutatutako momentuak, lortutako domina ere beti izango dut gogoan, momentu berezi bezala. Aurtengo Munduko Txapelketa asko disfrutatu dut. Errelebo mistoak eduki ditugu, estiloko eta libreko erreleboetan domina lortu dugu. Taldekideekin oso erlazio ona eduki dut, denok gindoazen bete-betean elkarrekin eta oso polita izan da.

Hala ere, uste dut garrantzitsua dela ikasten jarraitzea, gero igeriketa amaitzerakoan etorkizun bat edukitzeko. Ni orain integrazio soziala ikasten ari naiz. Online egiten ari naiz, entrenamendu guztiekin eta... Hasieran agian ez nuen hainbeste huts egiten, baina denbora pasa ahala bai. Horregatik erabaki nuen online egitea, dena hobeto gestionatzeko. Etxera iristerakoan klaseak ikus ditzaket, aurrez grabatutakoak edo zuzenean, horrela hobeto nabil.

“ ”

***Zortea dugu,
Basque Teameko
bekadunak
garelako***

Zeintzuk izango dira zure hurrengo pausoak?

Orain dudan ilusio handiena Parisera joatea da. Rio oso urruti ikusten nuen eta bat batean etorri zen aukera. Tokion pandemia dela-eta ez zegoen jende askorik. Paris hemendik gertu dagoela eta, lagunek eta familiak errazago dute bidaiatzea. Lagunek Joko Paralinpikoak nolakoak diren ezagutzeko aukera izango dute. ●

Aktualitatearen

gakoak

Aurrerapena...

GERDA TARO

Robert Capa
pseudonimoaren atzean
zegoen fotokazetari
aitzindaria

OSASUNA

Sistema publiko
gaixotuaren
erradiografia

MALORES ETXEBERRIA

"Komunitate euskalduna
ahalduntzen
lan handia dago"

IBILBIDEAK

Denboraren
orrialde geologikoak
Euskal Herrian

...eta gehiago



Abuztuko lehen
asteen kalean



ROJAVAKO IRAULTZAK HAMAR URTE

“Mentalitateen iraultza egiten dugu guk”

RONAHI KURDISTANE

Uztailaren 19an hamar urte bete dira Rojavako iraultza hasi zenetik Siria ipar-ekialdean. Hamar urtez Konfederalismo Demokratikoaren sistema garatzeko lanetan dabil Kurdistango Askapen Mugimendua: egitura komunalak sortzen, Estatu Islamikoaren kontra borrokan eta Turkiaren inbasioei aurre egiten, besteak beste. Alarma egoera ezarri berri da lurraldean, Turkia erasoaldi berri bat abiatzekoa delako, NATOren onespenezkin.

PKK, Kurdistango Langileen Alderdia da askapen mugimenduaren erreferentzia ideolo-

gikoa. Bere militanteak koadro politikoak dira, eta aipagarria da borrokarekiko duten dedikazioa. Alderdira batzean uko egiten diote jabetza pribatuari eta harreman sexu-afektiboei, eta bizitza mendietan gerrilla borrokan edo gizartearen dinamizazioan ematen dute. PKKko milaka koadro politiko daude mundu osoan zehar, eta urte gutxitako bizitza laburra izan ohi dute. Beren lana eta ikuspegia zein Rojavako prozesua ezagutu nahian elkarriketatu dugu, Kurdistan hegoaldeko Bashur hiriran, 22 urteko Ronahi Kurdistane PKKko koadroa.

 AITZIBER BEITIA LAIOTZ  AZADI PRESS

Noiz batu zinen PKKra eta zergatik?

2016an batu nintzen. Arrazoia, batez ere, kide koadroen jarrera izan zen, gizartean egoteko daukaten modua. Baina nigan eragin gehien izan zuena emakumeen antolakundera hurbiltzea izan zen, bertan ikusitakoak erakarri ninduen.

Zein izan da urte horietan zure ibilbidea?

Rojavan batu nintzen antolakundera. Formakuntza bat egin bertan, eta zuzenean mendietara batu nintzen. Mendian

ere hainbat formakuntza eta heziketa egin ostean Rojavara itzuli nintzen, eta bertan eman zidaten herri arabiarrarekin lan egiteko ardura. Urtebetetik gora Manbij-en egon nintzen lanean, Siria ipar-ekialdeko hiri arabiar batean, Eufratesen beste aldean.

Gizartean lan ezberdinak egin ondoren, hezkuntza batzordean hasi nintzen. Bertan formakuntzak antolatzen genituen antolakundeko jendearentzat eta ingurukoentzat. Rojavan nengoen 2019an Gire Spi eta Serekaniyeko inbasioa gertatu zenean. Ostean, urtebete

gehiago eman nuen mendietan gerrillarekin, eta orain Bashurren nabil lanean, Hegoaldeko Kurdistanen, Iraken.

Zer da koadro izatearen zailena?

Hasteko, korapilatsua da koadro izatea erabakitzea eta koadro batek hartu beharreko bidea, zaila da berez. Baina iraultzaile bezala ezin dugu esan zaila denik, egin behar dugula baizik, aitzakiek ez dute balio. Kurdistanen, borroka honengatik ez balitz, ez lirateke posible izango Rojavako iraultza, kurduok gure hizkuntza hitz egin ahal izatea,

eskola kurduez jasotzea, eraikitzen aritzea Konfederalismo Demokratikoa eta nazio demokratikoa Rojavan... zaila da, baina egin beharra dago eta zentzua dauka egiteak.

Azken finean, egiten dugun lana pertsonak eraikitzea da. 5.000 urte daukan mentalitate baten aurka gabiltza borrokan, mentalitate patriarkala, zapaltzaileen mentalitatea. Eta oso zaila da hori egitea, pisu handia eta historia luzea daukalako. Sakontasun izugarria dauka, ez da erraza horri buelta ematea. Baina egin nahi dugu pertsonak maite ditugulako, gure herria maite dugulako eta askatasuna maite dugulako. Zaila izanda ere, inoiz ez dugu pentsatzen ezinezkoa dela. Inoiz ez dugu esaten "mendi horretan ezin da ibili": pixkanaka egiten dugu bidea.

Zertan aldatu du zure mentalitatea koadro izateak?

Aldaketa handiak izan ditut azken urteetan. Baina koadro izanda ere ezin duzu esan amaitu duzula, amaierarik gabeko bide bat da. Amaiera litzateke pertsona guztiz askeak izatea, sistemaren eraginetik garbi, eta hori ezin du ia inork esan.

Nire kasuan, 16 urterekin batu nintzen. Pentsa daiteke ume bat nintzela, baina familia kurduetan gauza asko bizi dira, ez da berdina 16 urte izatea hemen edo munduko beste leku batzuetan. Gauza asko ikusiak nituen, batez ere familia barruko presioa: aitak amarieta

seme-alabei egindakoa, nebek arrebei, baita amak seme-alabei ere. Familiaren islamismoak asko eragin zidan, eta gizartearen indibidualismoak ere bai.

Oso pertsona isila nintzen, ezin nuen publikoan hitz egin; orain lasaitasunez hitz egin dezaket emakume zein gizonen aurrean, ez daukat arazorik pentsatzen dudana esateko. PKKko koadroak ez gara perfektuak, horretarako daude kritika eta autokritika metodoak. Tresna horien helburua da nork bere buruaren aurkako borrokan sakondu eta arazoak gainditzea. Horrela soilik lortu daiteke pentsamendu askea, azkeneko nortasun askea garatu dezakeena. Hori izan behar da gure lanaren emaitza.

Mendietan izan zara, gerrillan. Nolakoa da bertako bizitza komunala?

Zaila da azaltzea mendian izaten ditugun sentimenduak. Mendia gure ama bilakatzen da, dena erakusten digu. Ibiltzerakoan arropa zuhaitzen batean harrapatuta gelditzen zitzaidanean, mendia erakusten ari zitzaidan nola ibili behar nuen.

Askok aldatzen zaitu hango bizitzak, beste modu batean sentitzen duzu. Hirietako jendeak, aitortzen ez badu ere, askotan ez du bizi nahi. Bizirik daude baina ez dute bizitza maite. Mendian, aldiz, ikasten da maitatzen, sentimenduak eraikitzen. Ni oso pertsona indibidualista nintzen, oso itxia, mendian jende asko ezagutu nuen, eta garatu egin nintzen,

pertsona asko maitatzeko gai nintzen. Ez da harreman bat izatea pertsona batekin soilik, baizik eta maitasun harremanak garatu ahal izatea pertsona askorekin, maitasunaren ohiko ulerkeratik kanpo, emakumeak zein gizonak izan.

Kritika asko jaso nituen hasieran, ez nintzelako bizitza komunaleratu batzen, asko egoten nintzen bakarrik, baina lortu nuen gainditzea. Kide helduagoei begira asko ikasi nuen: nola sortzen dituzten harremanak, nola ulertu nahi duten ondokoaren iritzia, beti galdezka eta eztabaidatzen. Eta batez ere emakumezko kideen artean egoteak eta han eraikitako harremanek bultzatu ninduten gehien aldatzera. Alderdira batzea berriz jaiotzea bezalakoa da. Izen berri bat hartzen duzu eta bizitza berri bat idazten hasten zara, baina kasu honetan ez zure familiarentzat, ez sistemarentzat, zuretzat baizik.

Askok aipatzen duzue "berriz jaiotzea", zure aurreko bizitzarekin apurtzea. Zer kritika daukazu zure lehengo bizitzarekiko?

Dena kritikatu nezake. 16 urterekin batu nintzen, baina gustatuko litzaidake lehenago batu izana, sistemaren eragin gutxiago izango nukeelako, ez nengoke hain kutsatua.

Askok eragin zidan adibidez nire amaren nortasunak. Aitak ama eta nebak jotzen zituen, asko sufritzen nuen horrekin. Beti esaten nion amari ez nuela bere bizitza nahi: beti zegoen isilik,



agian noizbait alde egiten zuen baina beti itzultzen zen etxera, umeengatik.

Ezinegon horrek bila ibiltzera bultzatzen ninduen, nola eduki beste bizitza bat, nola bilakatu emakume indartsu. Momentu hartan ez nuen besterik ezagutzen, baina alderdia ezagutu nuenean jakin nuen hori zela beti nahi izan nuen bizitza, antolakundearen bizitza, PK-Kren bizitza.

Ni batez ere hirietan hazi naiz, hirien garapena individualismoan oinarrituta dago, hil egiten du bizitza komunala.

Koadroek dena ematen duzue iraultzagatik. Zalantzak izaten dituzu?

Garrantzitsua da hori, gure buruari egin behar dizkiogun galderak dira. Kontraesanak izan ditzakezu noizbait, baina ezberdina da zalantza edo kontraesanak edukitzea. Pertsona guztiek daukagu alde on bat eta alde txar bat, elkarriketan daudenak haien artean. Zentzu horretan, zalantzak zure buruaz izan ditzakezu, nolakoa izango zaren etorkizunean, zer ekarpen egingo diozun bo-rrokari.

Baina alderdiarekin ezin dut zalantzarik eduki. Ulertzen dugulako antolakundeak dena egiten duela herriaren eta iraultzaren alde, ez du ezer egiten etekin propioa ateratzeko, ez dago inor irabazi pertsonala ateratzen antolakundetik. Adibide argiena dira Qandileko mendietan dauden pertsonak. Bizitza eman diote antolakundeari, ordainetan ezer jaso gabe (ez soldatarik, ez autorik, ez etxerik...). Hori da herri abertzalea sortzen duena, pertsona horiek ezer jaso gabe herriagatik dena ematea.

PKK ur garbia da, goitik begiratzen badiozu hondoraino ikusten duzu argi. Jogurt txuri bat, zerbait beltza erortzen bada barruan azkar ikusten duzu. Zenbat eta konfiantza gehiago izan alderdiak bere helburuak lortuko dituela, orduan eta zalantza gutxiago izango dituzu.

Rojavako iraultza ezagutu duzu gertutik. Behin lurraldearen kontrola izanda, zein zailtasun topatu dituzue ?

Esan daiteke Rojavan nazio demokratikoa eraiki dela. Lehen aldia da herriak lidergoa daukana, lehen aldiz erabiltzen da kurduera eskoletan, unibertsitate-

tan... berria da guztiz. Baina ezin da esan iraultzaren lana amaitua dagoenik. Oraindik existitzen da mentalitate autoritarioa. Herri kurdua beti bizi izan da horren menpe, eta Rojavan badago oraindik. Egia da autonomia demokratikoaren sisteman herriak abangoardia paper handia hartzen duela, baina koadroak oraindik beharrezkoak dira herria hezten eta mentalitateen iraultza indartzen jarraitzeko.

Hori argiagoa da zonalde arabiarretan, non PKKk ez duen hainbeste eragin izan orain arte. Aurrerapausoak egon badira ere, herri arabiarra oso lotua dago autoritarismoari eta dominazioari, eta hori antzematen da mentalitatean. Orain gizon-emakume kopresidentzia sistema egoteak arazoak ematen ditu, baina aurrera doa. Emakume bat egon behar da beti gizartearen lidergo postuan, oso gauza berria gizarte arabiar honetan.

Guk mentalitateen iraultza egiten dugu, horretarako bitartekoak jartzen ditugu. Komunak daude herria antolatzeke, lanean gabiltza lan banaketa parekidea lortzeko, izan gizon eta ema-



kumeen artean zein gizarteko maila ezberdinen artean. Dirua existitzen da oraindik, oso sartua dago soldatapeko lanaren kultura, bainakideak lanean ari dira horri buelta emateko, elkartasuna eta trukea sustatzen. Mentalitate aldaketa prozesu geldoa da, hezkuntza asko eskatzen du. Alderdia ezin da joan herria baino bost pauso aurrerago.

Emakumearen askapen prozesua nola lantzen duzue Rojavan? Zein zen abiapuntua eta zer garatu ahal izan duzue?

Leku bakoitzean adierazpen ezberdinak izan ditzakeen arren, emakumeen arazoa berdina da mundu osoan, Rojavan, Ekialde Hurbilean edo Mendebaldean. Emakumeon esklabotza dago oinarrian, eta ez du balio arazoa zatikatzeak. Abdullah Ocalanek [PKKko liderrak] esaten du gizartearen askatasuna soilik lortu daitekeela emakumeen askapenaren bidez. Iraultza bat ez bada askatzailea emakumeentzat, ez da askatzailea izango gizartearentzat. Horregatik Rojavako iraultza emakumeen iraultza da, eta PKK emakumeen alderdia.

Noski, ezin da esan emakumeak gutiz askeak direnik Rojavan, zapalkuntza jasaten dute oraindik ere. Esklabotza egoera larriago batetik gentozen, baina orain emakumeen mugimendua instituzionalizatua dago, emakumeen etxeetatik Kongra Star-rera [Rojavako Emakumeen Antolakundearen Konfederazioa]. Ehunka erakunde dabilta emakumeen arazoetan lanean, formakuntzak antolatzen, familietako arazoetan bitartekari gisa eta abar. Maila praktikokoan ikus daitezke emaitzak, emakumeak dira gehienbat ekintzak antolatzen dituztenak eta mugimendura batzen direnak. Rojavan ikus daiteke nola berriz ari den agertzen emakumeen autoritate naturala, neolitoko garaietan zeukatena.

Hala ere, emakumeen iraultza horrek alde txar bat ere badauka. Irakurketa okerra egiten duten emakumeak daude, ulertzen dutenak askatasuna dela gizon askorekin joan eta haiek egiten dituzten gauzak egitea, etikoak ez diren gauzak. Nola gizonek egiten duten, zuk ere bai. Hori gertatzen da modu liberalean hartzen dutelako emakumeen askatasuna.

Zein da zure ametsa Rojavarentzako?

Ez dira nire amets pertsonalak, antolakundearen helburuak baizik, ez soilik Rojavarentzat, baizik eta mundu osoarentzat. Helburua da eraikitzea koadroa-



“Rojavan
lehen aldia da
herriak lidergoa
daukana”

ren rola beharko ez duen gizarte demokratiko bat. Gizartea bere kasa antolatu dadila eta bere beharrak ase ditzala, herria bera izan dadila abangoardia. Orain beharrezkoa da koadroaren figura, baina hori da daramagun norabidea.

Zer kritika egingo zenizkioke Europako gizarteari eta mentalitateari?

Ezer baino lehen esan beharra dago Mendebaldean badagoela historia iraultzaile handia, eta iraultzaile ugari atera direla handik. Galderari erantzunez, bi arazo nagusi ikusten ditut. Lehena liberalismoa da. Gizartea ahultzen du liberalismoak, otzandu eta lotura sozialak gutxitzen ditu, gizartea hiltzeraino. Beste arazoa askatasunaren ulerkerarena


da. Ekialde Hurbilean mundu guztiak joan nahi du Europara, nahiz eta oso zaila den. Ikusten dugu hango askatasuna dela arropa motza eramatea, festa egitea eta 18 urterekin etxetik joatea. Oso azaleko gauzak dira horiek, ez dute zerikusirik benetan askatasunarekin.

Joera dago Ekialde Hurbila mespretxatzeko, baina zonalde honetan komunitatea defendatu da. Dena ez da ona, baina mantendu ditugu bizimodu komunitarioagoak, Mendebaldean pentsaezina direnak.

Europar elkarriketa hau irakurtzen duen norbaitek, edo mugimendu kurdia ezagutzen duenak, zer egin beharko luke?

Ez dut bertako testuingurua ezagutzen, beraz, erantzun orokor bat emango dut. Askatasunaren kontzeptua ulertzeko beharrezkoa da pentsatzea zertara etorri garen mundura. Ea benetan bizi nahi dugun markatu diguten bezala, edo arrastoa utzi nahi dugun munduan. Ocalanek dio arrastoa utzi eta historiaren parte izatera pasatzeko nor bere buruaren aurka egin behar duela borroka, aldatu ahal izateko. Ezin da bizi galdetu gabe: zer nahi dugu? Zer egiten dut niretzat? Zer egiten dut herri honentzat? Nor naiz? Nora noa?

Gaur egun jende asko dago munduan horrelako ezer planteatu gabe, helbururik gabe bizi dena. Baina galdera horien inguruan hausnartu eta erantzuna ematen diegunean soilik sortu dezakegu testuingurua sistemarekin amaitzeko. ●



Lola Iturberen eskola



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Bartzelona, 1902ko abuztuaren 1a. Lola Iturbe Arizcuren anarkista eta feminista aitzindaria jaio zen. CNT-ko kidea eta Mujeres Libres erakundeko sortzaileetako bat, 1936ko Espainiako Gerra amaitzean Frantziara alde egin zuen eta han Erresistentzian parte hartu zuen. Franco hil eta gero Gijonera joan zen eta han hil zen 1990ean, ekintzaile izateari sekula utzi gabe. Haren haurtzaroa erabakigarria izan zen geroko ibilbide mamitsua taxutzeko.

Bartzelonan jaio arren, Lola Nafarroan ernaldutako zuten, Monrealen. Bertakoa zen Micaela Iturbe ama. Ezkongabea zela gelditu zen haurdun eta, horregatik, aitak, Lolaren aitona, arbuiatu egin zuen. Micaela Bartzelonara joan zen orduan, eta han erditu zen. Haurra zaintzeko bitartekorik ez zuenez, Valentziako familia bati utzi zion Lola jaioberria.

Lehen zazpi urteak Cerdá herrian eman zituen, ama haren bila joan zen arte. Orduan jakin zuen Lolak Micaela zuela ama, eta herri txikian zuen bizimodu lasai eta askea errotik aldatuko zitzaion. Amarekin batera, Bartzelonan, lanean hasi behar izan zuen; Posentí familiaren etxean neskame lanetan hasi ziren ama-alabak, sukaldean eta nagusiaren alaba gaixoa zaintzen. Baina nagusiaren negozioak porrot egin zuen handik gutxira, eta biek etxea utzi behar



Duela 120 urte jaio zen Bartzelonan Lola Iturbe ekintzaile anarkista eta feminista.

izan zuten. Micaelak pentsio txiki bat zabaldu zuen Rossic kalean. Lola, pentsioan laguntzen aritzeaz gain, jostintzan hasi zen bederatzi urte besterik ez zituela. Eta eskola utzi behar izan zuen.

Baina pentsioa eskola libertario modukoa izan zuen Iturbek. Bertan langile askok hartzen zuten ostatu, eta haien

bidez jaso zuen une hartako asaldura sozial eta politikoaren berri. Hain urte gutxitan bizitzak emandako jipoiek irakatsitakoari diskurtsoa eta antolatzeak aukera erantsi zizkion. Eta, hala, ez da harritzekoa, 14 urterekin, ehungintza industrian prakagin aprendiz zela, CNT sindikatuan buru-belarri sartzea. ●



SAMIA

Erromatar busto ibiltaria

2008an Laura Young antikuariak busto bat erosi zuen 34,99 dolarren truke, Austingo (Texas, AEB) bigarren eskuko dendan. Piezaren jatorria ikertu ondoren, erromatar garaikoa zela jakin zuten. Egun San Antonioko Arte Museoan dago ikusgai, baina aurki legez dagokion lekura itzuliko dute. Italiara? Ez, Alemaniara. Luis I. Bavariakoak Ponpeiako etxe baten

erreplika egin arazi zuen XIX. mendean, Pompejanum izeneko, eta Bigarren Mundu Gerrak eztanda egin zuenean hantxe zegoen bustoa. Biltegi batean gorde zuten orduan. Ez dakigu nolatan iritsi zen pieza AEBetara, litekeena da soldadu estatubatuar batek lapurtzea. Baina, hori guztia baino lehen nolatan iritsi zen bustoa Luis I.aren eskuetara? ●

IKASTAROA

Bizitza linealak vs. bizitza ziklikoak

 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Bizitzak buelta asko ematen ditu. Nork ez du esaldi hori entzun eta esan? Bizitza faseak dira, ziklikoa da eta momentura egokitzen joaten gara. Badu bertute hori gizakiak. Egokitzearena. Baina zer gertatzen da hileko ziklikotasunarekin? Munduaren erdia gara gutxi gorabehera hogeita zortzi egunetik behin hankarteak odolez bustitzen dugunak eta ziklo hori ikusezina da eremu askotan. Nola eragiten du gorputzen ziklikotasunak enpresa batean? Hori izan da ARGIA-ko formakuntza lantaldeak antolatatu duen ikasturteko azken saioa.

Ara! Gorputz elkarteko Ione F. Zabaleta eta Enara I. Dominguez izan dira hilaren 8an Lasarte-Oriako egoitzan. Gaian sartzeko, saioaren hasieran gai-emaeleek azaldu diete lehen aldia dela enpresa batetik horrelako proposamen bat jasotzen dutena eta zein arrisku ikusi dituzten saioa prestatzerako garaian. Kapitalismoak bizitzak modu lineal eta ahalik eta produktiboenera bideratzeko intentzio etengabekoa duenean, enpresa batek erabili dezakeelako emakumeen ziklikotasuna bere alde egiteko ere. Alegia, kalkulatzeko noiz eta zenbat denboraz den produktiboa pertsona hori eta noiz atera dakioken zuku gehien soilik bere intereserako.

ARGIAren asmoa izan da lantaldean ikusaraztea zer garrantzia duen ondokoa nola dagoen jakiteak edo horrela zergatik egon daitekeen ulertzeak, baita bizitzak modu linealean konprenitzeak sortzen duen biolentziaz kontzientzia piztea ere.

Saioaren lehen zatia teorikoa izan bada, sartu dira praktikan ere. Atera dira proposamen batzuk. Hasteko, aldizkariko orrietan espazio gehiago eskaintzea gaiari. Eta, horrez gain, botikinean edo komunetan hilekoarentzako produktuak –ahal bada ekologikoak, azpimarratu dute– jartzeko edo komunak hileko kopa erabiltzen dutenentzat egokitzeko proposamenak bildu dira. Dena den, horrelako gaiak jorratzeko eta lantalde batean beharko lukeen garrantzia emateko eredu falta ere agerian geratu da.

Balorazioa positiboa izan dela adierazi dute langileek. Gizonezkoek gaiarekiko duten ezjakintasuna azpimarratu dute. Ohartu dira ziklikotasun hori beren egunerokoan ikusezina dela, eta sarri ez direla horretaz ohartzen, eta balio izan du taldeko kideek beren esperientziak partekatzeko, jendea irekitzeko eta gaia modu pertsonalagoan mahai gainean jartzeko. ●

Ongi etorri Komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



“Euskal kultura eta herrigintza egiteko oinarritzko proiektua iruditzen zaidalako ARGIA, euskaratik eta euskaraz”

Oiongo Iker

“Euskara ikasten ari naizelako, baita politikoki esnatzen ere”

Donostiako Pablo

“Kazetaritza independentea bultzatzeko”

Mendatako Jon

Ezkerrean, Ione F. Zabaleta eta Enara I. Dominguez Ara! Gorputzeko kideak. Eskuinean, ARGIAren Lasarte-Oriako egoitzan egindako formakuntza saioaren irudia.

URKO APAOLAZA / ARGIA



ELIKADURAREN NORANZKOAN LANDAREAK IPAR-HEGO ORRATZ



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Ez gaude udaren erdian baina udabihotza ari du eta uda mina jasanezina da. Giro zakar hauen emana ugartzen ari dela diote. Nik ez dakit; lehen ere nonbaiteko suak erretzen zituen uztailak eta agorrilak.

Etengabeko aldaketaren egungo hinkari "klima aldaketa" esaten diogu, milioika urtean aldatzen den lehen aldia delakoan edo... Berotze aldi honetan jan eta elikatzen segi nahi badugu, beroak jo baina gori-belztu baino lehenago landareek hartzen dituzten erabakiak eta horien araberrako jokabideak ezagutzen hasi beharko dugu berandu baino lehen. Landare bakoitzak hautatzen eta jokatzeko du bere ibilmoldea.

Uda parteko ohiko galdera izaten da hostoak kiribildu eta makurtzen dituen tomate landarea (*Solanum lycopersicum*) zenbat eta zer maiztasunekin ureztatu behar den. Tomatea basamortu ertzetik

datorren landarea da. Beroaren berri ez diogu guk emango; horrexegatik hain pataltal bizitzen da gure isuri atlantiarrean. Landare gehienek hostoak lurraren plano paralelotan zabaltzen dituzte, eguzkiaren bila. Bada tomatea bezalako landare berozale batek hostoak tolestu eta makurtzen baditu, bero ikaragarria dagoela esaten ari zaigu. Ezin du hostoak tente, zabal eta guri eusteko adina ur sustraieratik igo eta nahiago du eguzki gutxiago hartu eta bizi-tzetik irauterako koska jaitsi. Ahal bezain pronto igoko du atzera. Berdin jokatzeko dute hosto handiak dituzten kuia erraldoiak (*Cucurbita pepo*) eta Gernikako kuiak (*Cucurbita moschata*) ere.

Euskal Herriko hegoaldeko lurretan bizi den asta-uraza (*Lactuca serriola*) zaildua da lan horietan. Beroaldi handienak baliatzen badaki. Inguruko landareek beroak gorena jotzerako hazi, loratu eta haziak eman dituzte eta zimeldu dira. Berak

bakardade horrek eskaintzen dion elikagaiak sustrairatzeko parada mauka bihurtzen du, eta hazi, garatu, loreak zabaldu eta haziak hedatzen ditu. Horretarako estrategia ezin asmotsuagoa, buruargiagoo eta zoliagoo borobildua du. Hostoak ez ditu lurraren plano paraleloan zabaltzen, bertikalean baizik. Horrela goiznabarrean eta ilunsentian soilik jotzen du eguzkiak, ahulena denean; eta eguzkia hobeto saihesteko hostoen plano bertikala ipar-hego norabidean dago. Hosto horiek argizarizko estaldura dute, eta kolore berde argi-argia, glaukoa, argia islatzeko. Inguruan landare gutxiarekin, animalia belarjaleen hortzak uxatzeko kirats ederra eta eragin psikotropiko nabarmenak dituen latex toxikoa ditu.

Asta-urazak ipar-hego norabidea argi du. Guk noranzko ibilmoldea egin nahi dugu gure (alaba-semeen) etorkizuneko elikadurarekin? ●



Kuia erraldoiak hostoak eraitsita, eguzki galda saihesteko.

BERDESIA

AZPIEGITURA HANDIZ INGURATUTAKO TAFALLARI ARNAS EMATEKO GUNE BERDEA



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Mota askotako azpiegiturek gurutzatzen dute gure herria: autobaiak, gasbideak, AHTak, goi tentsioko lineak, barianteak... eta horri, gainera, herri-guneraino iristen diren nekazaritzako lur intentsibo industrialak gehitu behar zaizkio. Horrela deskribatu du Tafallako egoera Mauricio Olite Arizek, Berdesia elkarteak lehendakariak. Inguru ez oso osasuntsu eta paisajistikoki gogor batean bizi zirela ikusita, zerbait egiteko beharra sentitu zuen herritar talde batek 2016an, eta Berdesia proiektua abiatzea erabaki zuten. Helburua, barreira moduan funtzionatzen duten azpiegitura horien mugen barruan, behintzat, "biodibertsitate handiko babes berdea" eraikitzea da. Baso perimetrala deitzen diote horri.

12.058 ZUHAITZ LANDATUAK

400 hektareako gunea hartzera iritsi nahi du Berdesia proiektuak. Tartean, gehiena lur komunalak dira, baina badira partikularrak ere. "Gune barruan basoa eta landaketa tradizionalen mosaiko moduko bat egin nahi ditugu, ekoizpen ekologikoa ere bultzatuz", dio Olitek. Eredu berdea dibertsifikatua izatea nahi dute, basoaz gain barazte txikiak ere bere tokia izatea. "Gaur egun bertako nekazaritza lur ia guztia zerealek hartzen dute, eta hori pixkanaka dibertsifikatzea eta labore eta ekoizpen modu tradizionalak bultzatzea ere bada gure asmoa: intxaurrak, gereziak eta bestelakoek bere tokia izatea nahi dugu", gehitu du.

Duela bost urte mintegia sortu zuen elkarteak abandonatutako udal instalazio batzuetan, baso perimetralerako landareak bertan hazteko. "Auzolanean ateratzen gara noizean behin



ezkurak eta bestelako haziak biltzera, eta mintegian landareak hazten ditugu boluntariook, gero horiek landatzeko". Artea eta erkametzat dituzte batik bat, bertako basoaren oinarri baitira horiek, baina arbendolondoak, astigarrek eta bestelako espezieak ere erabili dituzte; guztira hamazortzi. Momentuz, partzela txikietan banatutako hamalau hektarea ditu gune berdeak, eta 12.058 zuhaitz landatu dituzte bertan, 28 auzolan egunetan. "Herritarren parte-hartzea oso garrantzitsua da proiektu honetan. Ikastetxeekin eta herriko elkarte eta talde guztiekin ari gara elkarlanean: jubilatuek, gazteenak, mendi taldeak, feministak, merkatarien taldea... guztiek hartu dute parte landaketetan", dio.

ETORKIZUNARI BEGIRA, BAINA GAURTIK EKINEZ

Proiektu txiki batetik estrategia oso izatera pasatu da azken bi urteotan Tafallakoa. Elkartea, udalarekin eta Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean "Berdesia estrategia" lantaldearen parte da. Etorkizunera begirako ekintza, proiektu eta helburuak zehaztu dituzte estrategia horren baitan, eta laguntza ekonomiko eta teknikoa ere jaso dute. "Gure proiektua utopiko eta anbiziotsua bada ere, ez genuen etorkizunean lurak lortzera mugatu nahi, gaurko egunetik ahal dena egitea da gure ideia: udalarekin eta lurjabeekin elkarlanean, lurak uzten dizkiguten heinean landaketak eginez", amaitu du. ●

“ ”

*Erdi-sekretuak edo
bazterrekoak diren testuak
gustatzen zaizkit*

Santi Leoné
Idazlea



Ekaineko arratsalde batez dugu hitzordua Santi Leonérekin (Iruñea, 1972) *Liztor mutanteak* ipuin liburuaz hitz egiteko. Formazioz historialaria eta ogibidez euskara irakaslea Iruñeko Hizkuntza Eskolan, gure panorama kulturalan ezaguna zen aurretik saiogile, artikulugile eta itzultzaile gisa egindako lanengatik. Aurten Susa argitaletxearen eskutik publikatu duen liburu hau du estreinako lana narratibaren alorrean.

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA
 DANI BLANCO

Hiri Buruzagiko Xabier karrikan dagoen Leiho kafetegian hitz egin bitartean, Peter Handkeren liburu bat dauka mahai gainean Santi Leonék, alemanezko edizioan. El-karrizketa bukatutakoan berriz, gertu dagoen TBO komiki dendara eraman gaitu argazki-saioa egitera: idazle iruindar honen bi munduak, goi mailako literatura eta pop kultura, erraz gurutzatzen dira, bai idazten dituen istorioetan, baita hizketan ari denean ere.

Fikzioaren eremuan hau da zure lehen liburu, baina ez zara berria letren munduan. Zergatik hainbeste denbora ipuin hauek argitaratu aurretik?

Nire ohiturretako bat da gauza guztietara beti berandu ailegatzea. Fikzioa idazteko asmoa aspalditik izan dut, baina batzuetan ez dut astirik izan, besteetan ez dut gogorik izan; eta beste batzuetan ez astirik, ezta gogorik ere. Pandemia hasi baino lehen lantokian sei hilabeteko eszedentzia hartu nuen, hain zuzen idazteko asmoz, eta gero gauzak gaizki ateraziren eta ezin izan nuen idatzi. Asmoa hor zegoen. Poliki-poliki hasi nintzen

idazten aspalditik nituen ideiak eta gero sortu diren beste batzuk. Iduri du ezetz, baina pauso handia da momentu batean jartzea eta "hasiko naiz idazten" esatea. Ikaragarri kostatzen zait lehen pausoa ematea, horregatik pasa da hainbeste denbora. Gauza guztiekin gertatzen zait, pelikula klasiko batzuk ere hor daukat, ikusi behar ditut, ikusi behar ditut... eta momentu batean "gaur ikusiko dut" esan arte ez dakit zenbat urte pasa daitezkeen. Honekin berdin: azken saiakera publikatu nuenetik [*Euskal Herria XIX. mendeko bidaia-liburuetan*, Alberdania] hamahiru urte pasatu dira. Baina bitartean beste gauza batzuk idatzi ditut, itzulpen batzuk ere egin ditut... Eta momentu batean erabaki nuen gauza batzuk barnetik atera behar nituela.

“ ”

Batzuetan ironia arriskutsua izan daiteke

Bi joeratako ipuinak sumatu ditut: metaliterarioak direnak, batetik; eta pertsonen arteko harremanetan zentratuagoak bestetik, tonu errealista edo gordinagoak agian.

Metaliterarioak direnak zaharragoak dira besteak baino eta horietan maiz gaia da idazlea izan nahi eta ezina. Hainbat pertsonaia saiatzen dira idazle bihurtzen, baina beti porrot egiten dute. Edo, *Jainko astronautak* ipuineko protagonista den Gorka Goenagaren kasuan, lortu egiten du, ikaragarri obra oparoa idazten du, baina tira, ipuinean esplikatzen dira atzean dauden arrazoiak. Bertze ipuinetan bai, tonua errealistagoa da igual, nahiz eta *Liztor mutanteak* izenekoan, istorioa berez errealista izan arren, ipuinean ikusten ditugu narratzailearen burutazioak, eta badira burutazio nahiko... ez eroak, baina... bueno, bereziak. Liburuko ipuin pare batekin esperimenduak egin nituen: izena aldatu eta nire ikasleekin irakurtzen nituen, ea zer erraten zuten. Hain zuzen *Liztor mutanteak*-ekin hori egin nuen eta erantzunak izan ziren: "Hau paranoia hutsa da" edo "hau zer da?" bezalakoak.

Eta horregatik gustatu zitzazun emaitza.

[Barre egin du] Bai. Eta bueno, bi multzo horiek hor daude, baina badira bi multzoak lotzen dituzten gai batzuk, adibidez frustrazioa edo gehienetan lekuz kanpo dauden pertsonaiak izatea protagonista. Badut bertze ipuin bat orain erdi-idatzia. Hau eskusiba bat da, scoop bat [barre egin du]: badakizu Euskal Herrian barna ibili dela Joseba izeneko tipo bat, dirua lortzeko jendea engainatu duena, euskara erabiliz. Niri antzeko zerbaite gertatu zitzaidan, baina japoniar batekin: etorri zitzaidan esanez mailetak galdu zituela, faborez dirua uzteko. Utzi nion dirua, noski. Orduan, erdi bukatuta daukadan ipuin horretan hori gertatzen da: hasten dira kontatzen Josebarena eta narratzaileak beti, Twitterren, Facebooken, toki guztietan erraten du: "Niri gauza bera gertatu zitzaidan, baina japoniar batekin". Gero Josebaren biktinek afari handi bat antolatuko dute kiroldegi batean eta narratzailearendako sushia eta sakea-eta jarriko dituzte, baina aldagelan. Halako batean, bakarrik sushia jaten ari dela, asotsa adituko du, bat-batean isiltasuna eta gero aieneak eta intziriak. Eta susmatuko du orgia bat egiten ari direla. Eta bera sushia jaten, bakarrik. Anekdotak horrek nire ustez adierazten du zein den nire pertsonaien egoera munduan, eta neurri batean, batzuetan, nik nire burua ere horrela ikusten dut. Ez dira taldekoak, baina aldi berean, antzeko zerbaite gertatu zaie. Ez daude taldetik kanpo, baina ezta taldean ere: pixka bat bazterrean daude.

Ipuin hauetan berdin aurkituko ditu irakurleak pop kulturako erreferentziak -komikiak, zientzia-fikzioa- eta goi-kulturakoak. Badago bien arteko oreka edo nahasketa bat.

Zineman B serieko pelikula gustatzen zaizkit. Horrelako filmetan ikusleari eskatzen daion konplizitatea. Zuk ikusi behar baduzu *slasher* generoko film bat edo zombien pelikula bat, badakizu zein diren arauak. Gero ikusiko duzu ea egileak errespetatu dituen, hautsi dituen, noraino hautsi dituen, zertarako... Maiz, Z serieko pelikula txarretan gustatzen zaidana hori da. Egileak esaten dizu: "Pelikula txar bat ikusi behar duzu, baina gure gustuko pelikula da". Gero ikusleak ez du edozer gauza onartzen, baina konplizitate hori gustatzen zait.

Kodea partekatzea?

Bai, hori da. Eta goi mailako kultura ere, ba bai, gauzak interesatzen zaizkit, plazer estetiko hutsagatik. Liburu batzuekin tonua bera nahiko izaten dut. Orain lagun batzuek Hermann Brochen *Virgilioren heriotza* irakurriko dugu eta liburu hori nola hasten den, lehenbiziko esaldia, nola ematen dion erritmoa narrazioari, hori ikaragarria iruditzen zait. Baina aldi berean, eta hori lotua dago kultura popularrarekin, aunitz gustatzen zaizkit jostetatik duten testuak. Borges ikaragarri gustatzen zait: maiz josteta intelektuala izaten dira haren lanak. Zuk oreka hitza erabili duzu, baina nik erranen nuke neurrigabekeria edo bulimia dela. Adibidez nire emaztearekin mintzatuko bazina erranen lizuke etxean jada ez garela kabitzen. Eta hor badira gauzak eta gauzak, akaso sekula irakurriko ez ditudanak. Batzuetan liburu-dendan zerbait ikusi eta erraten dut: "Zeinen ongi, hau ez zait interesatzen".

Kultuzko testuak ere agertzen dira, komunitate batentzat fundamentalak izan arren, erdi ahanzturan geratu direnak. Arduratzen zaitu gai horrek?

Fama nahiko injustua izaten da. Batzuek sekulako fama lortzen dute, eta mundu guztiari gustatzen zaio haien obra, haien liburu guztiak. Eta beste batzuek ez dute hainbertzeko arrakastarik lortzen eta geratzen dira pixka bat bazterrean. Testu horiek, erdi-sekretuak edo bazterrekoak, gustatzen zaizkit. Batzuetan, ikusten dudanean halako liburuak ez dakit zenbat ale saldu dituela, pentsatzen dut: "Hainbertze saldu baldin baditu, ez da beharrezkoa nik erostea". Aldiz, lurperatuak dauden perlak gustatzen zaizkit. Berriki, eta barkatu nire burua aipatzea, Euskalerrira Irratirako kolaborazio batean Elisabeth Taylor izeneko idazle batez mintzatu nintzen. Ingalaterrako idazle bat dela deskubritu nuen eta pentsatu nuen bizi osoa pasatu behar izan zuela Elisabeth Taylor aktorearen itzalpean. Googlen hari buruzko informazioa bilatzeko jarri behar duzu "*Elisabeth Taylor writer*", ez da nahikoa izena bakarrik jartzea, bertzenaz aktoreak hartzen du leku guztia. Alegia, giltzaren bat behar duzu harengana iristeko.

Aurkezpenean aipatu zenuen zure bizitzako benetako gertakarietatik abiatu zinela kasu batzuetan. Baina, era berean, nabarmen fikzioaren alde apustu egiten duen liburua da hau,

ez da azken urteetan modan dagoen "ni-aren literatura" deiturikoaren eremukoa.

Bai, ipuinetako batean pertsonaietako batek dio dena aspergarriagoa dela literaturarik gabe. Egunerokotasuna kontatzea, bere horretan, ez zait aunitz interesatzen, egunerokotasuna bizi egiten dudalako. Literaturak bertze zerbaite-rako balio beharko luke nire ustez. Nik ere hartzen ditut abiapuntu gisa benetan gertatu diren gauzak, eta ongi da; baina gero bertze zerbait egin behar da. Adibidez, niri gustatzen zaidan zineman, beldurrezkoan, batzuetan saiatzen dira pelikulan narrazio interesgarria, ona, erakargarria egin beharrean gai inportanteak lantzen: bullyinga, arrazakeria, klasismoa edo homofobia. Bueno, bai, gai inportanteak dira, baina behar bada gaizki landu dituzte edo behar bada narrazioa aspergarria da, edo ez da interesgarria edo sinesgarria. "Baina hau mugarri bat da, zeren orain artio inork ez du gai hori landu", esaten dute. Uste dut halako obsesio bat dugula gaur egun gaiarekin.

“ ”

Egunerokotasuna kontatzea, bere horretan, ez zait aunitz interesatzen

Azken ipuinak arreta deitzen du: bullyinga, haurren krudelkeria... baina gaiak gain, nola kontatu duzun: atzekoz aurrera.

Esperientzia pertsonal batekin lotura dauka, hortik sortu zen. Bukaera den bezalakoa izatea editoreari zor zaio, ni ikaragarri txarra naiz ipuinak ordenatzen eta hori Leireren [Lopez Ziluaga, Susako editorea] proposamena izan zen. Eta nik uste bete-betean asmatu duela. Atzetik aurrera idatzita dago eta behar bada irakurleren batek pentsatuko du poliki-poliki deskubrituko dela zergatik egiten dioten bullyinga. Baina gero ez dago arrazoirik, batzuetan gauzak horrela gertatzen dira, haurrak krudelak direlako edo batzuk erraz bihurtzen direlako biktima, beste motiborik gabe.

Hain zurea duzun ironia ere maiz agertzen da ipuinotan. "Gai inportanteak" landu behar diren garai hau beharbada ez da proposena ironia erabiltzeko?

Ez, nik uste dut ezetz, eta gaia zein den, are gutxiago. Baina ez da... bai, nahitara egiten dudana zerbait da, baina aldi berean berez ateratzen zaidana. Tonu horretarako joera dut eta horrek, ez ipuinetan jakina, baina nire artikulua batzuetan problemak ekarri dizkit. Bada hitz egiten ez didanik egin ditudan kritikengatik. Batzuetan ironia



arriskutsua izan daiteke, ez delako ongi ulertzen edo batzuek literalki ulertzen dutelako. Akaso ez dira garai-rik hoberenak, baina zer egingen diogu.

Nola ikusten duzu alde horretatik gure panorama kulturala?

Beti daude, garaiaren arabera, gai ukiezinak edo pertsona ukiezinak. Niri gertatu zait biak ukitu ditudala eta horrek gatazka batzuk ekarri dizkit. Bolada batean batzuek uste genuen, eta hala adierazi izan genuen, Kirmen Uribe ukiezina zela. Eta gero bueltaka

ibili naiz horrekin eta uste dut oker nengoela –edo geundela–: Uribek kritika batzuk aditu behar izan zituen eta batzuk nahiko gogorrak. Egia da babestua dagoela eta ez ditut ulertzen ETBk egiten dizkion erreportaje horiek: "Hau da New Yorken erabiltzen duen mahaia idazteko", *Vascos por el mundo* literarioa. Baina ez da ukiezina. Gaur egun, ordea, badira gai batzuk, pertsona batzuk, estatus hori lortu dutenak eta kontuz ibili behar da. Ez zait gustatzen sare sozialei gauza guztien errua botatzea, baina batzuetan sare

sozialetan sortzen diren eztabaidek ez dute laguntzen, zeren zuk ekintza jakin bat edo iritzi jakin bat kritikatzeko duzu eta zenbaitek berehala ulertzen dute –edo ulertu nahi dute– mugimendu guztiaren kontra zaudela: dela abertzaletasuna, dela feminismoa, dela euskara... dena delakoa. Eta bueno, ni ez nago ados pertsona horrekin puntu horretan eta hori adierazi nahi dut, baina pertsona hori nor den eta gaia zein den, ba, zaila izaten da hori adieraztea. Eta ironia erabiliz gero, akabo. ●





LIBURUA

"Haur bat nahi nuke gizonik gabe"



ENE ANAIA FEMENINOA

MARINA TSVETAIEVA
ITZ.: JOXE MARI BERASATEGI

EREIN & IGELA, 2022

AMETS IRIARTE

Epigrama bilduma da Natalie Clifford Barney idazle estatubatuarren 1920ko *Pensées d'une Amazone* liburua. Asko eta askotarikoak dira pilatzen dituen pentsamenduak. Liburuaren hasieran 50etik gora eskaintza ageri dira, eta Barneyk irakurleari diotso berea hauta dezala. Horrela egin daiteke gero datozen epigramekin ere, pentsamendu solteak dira asko, haien artean kontraesankorrak batzuk, baina XX. mende hasierako kontzientzia feminista eta bakezale baten –berearen– berri ematen du.

Liburu horretako lehen atalean emakumeei esleitzen zaizkien rolez ari da, besteak beste, baita gerraz eta maitasun heterosexual eta homosexualaz ere. Horrela dio epigrametako batek: “Gure etxe bakartietara hurbil daitezela suak garbitutako horiek guztiak: gizon baten emaztea, ama edo arreba baino hobeak izango gara, gizonaren anaia femeninoa izango gara”.

Liburu horri, esaldi horri, erantzuten dio Marina Tsvetaievaren *Ene anaia*


femeninoa gutun luzeak –*Gutuna amazonari* du azpi-izenburua–. Barneyk harreman lesbikoez eta amatasunaz esandakoei erantzuten die bereziki. Asko dira, hau bezala, Tsvetaievak beste idazle batzuei eskainita idatzitako testuak. Harremana izan zuen bere garaiko poeta ugarirekin, eta badirudi, testuaren hasieran esaten duenagatik, Barneyrekin ere topo egin zuela. Parisen erbesteratuta egon zen Tsvetaieva 1925etik 1939ra, Errusiako Iraultzan zuriaren aldeko jarrrera harturik. Tsvetaieva erbesteratu politiko errusiar bakartu eta txiroarekin alderatuz, baina, bestelakoa zen Barneyren Parisko bizitza, Jacob kaleko Adiskidetasunaren Tenpluan saloi literario ezagunak egiten zituen.

Poeten poeta izan zen Tsvetaieva, baina ukoarekin eta bazterketarekin egin zuen topo behin eta berriz: bai literarioki, ingurune literarioetan lekurik ez baitzuen topatu, bai politikoa eta soziala ere, batekoek zein bestekoek mes-

fidantzaz ikusten baitzuten. Gerora egin da ezagunago bere obra, eta euskaraz, oraingoz, bere *Bukaerako poema* ere irakur dezakegu, Josu Landaren itzulpean.

Ene anaia femeninoa prosan idatzitako testu autobiografikoen artean kokatzen da. 1933an hil zen Tsvetaievak sutuki maitatu zuen Sofia Parnok poeta, eta min horretatik edaten dute hitzok, harremanak utzitako orbainen eta maitale ohiaren heriotzaren zauri berritik. Harreman horretan bizitakoaz baliatzen da harreman lesbikoez eta amatasunaz gogoetatzeko.

Liburuan dioenez, haur bat edukitzearen desirak egiten du ezinezko harremana, “haurra” da Barneyk bere epigrametan askotan aipatu baina inportantziarik ematen ez diona, Tsvetaievak haren hitzetan kausitu duen hutsunea, hainbeste min dakarkiona: “Sahats bat desesperatzen ikusten dudanean konprenitzen dut Safo”. ●



MUSIKA

Lasai ederrean egotearen ederra

Mal de Ojo taldea artxiboko irudi batean. Erdian, gitarra eskutan, Egiako Adrian Perez musikaria.



IRUTYULOK OHITZAREN ARTXIBOA



LASAI EDERREAN

ADRIAN PEREZ

BALIO DUTE, 2022

XALBA RAMIREZ

Searching for sugar man bezalako istoriorik ez du emango Euskal Herriak. Gutxitu eta gutxietsiak, zer egingo diogu. Baina herri txiki –eta infernu handi– honek eman ditu hainbat mito, itzaletatik agertu eta itzaletara itzultzen direnak.

1980ko hamarkadan eduki zuen bere bataio musikala Adrian Perez donostiarrak, Mogollon taldearekin. Talde horren sortzaileetako bat izan zen eta Donosti Sound zigilua osatu zuten garaiko beste hainbat taldearekin batera. Baina ezaguna Mal de ojo runba taldearekin handik eta hemendik ibiltzeagatik egin zen.

Sugar man-en dardara bertsuekin zabaltzen du Adrian Perezek bere lehen bakarkako diskoa. *Esaidazu*-k badu kantugintzaren ezkutuko DNA horren sekretua. Nik ez dakit sekretu hori zein den, baina erraz identifikatzen da. *Esaidazu*

entzutean, ez dakizu lehen aldia den ala kanta betidanik ezagutzen duzun, zure nerabezaroan oihu ozenez abesten ote zenuen edo ez.

Sixto Rodriguezekin egindako alderaketa estetik aldenduta, badu lanak melankoliatik, baina lan alai bat da –Ezin dugu gutxiago eskatu garaiotan, ezta?–. *Bizitzaren kantua* eta sample bat dirudien ahots urrun hori. Hemengo dardara ilunek lepoa jartzen dute dantzan.

Herioaren itzala kantaren errepika izan daiteke diskoaren esentzia harra-patzen duena. Nota gutxi batzuekin gai da kanta lekuz mugitu, eta gogoan melodia ederra uzteko, eta herioaren eta lasaitasunaren zapore gazi-gozoa.

Lana egiteko Adrian Perezek bere ilobaren laguntza izan du: Unai Pelayo egiatarrarena. Eta Pelayok bere in-kondizionalena: Elena Ramirez, Andoni Olaetxea, Telmo Trenor eta Iker Vaz-

quez. Ramirezek, beti bezala, eman dio ukitu magiko hori, beste inon topatuko ez duzun ukitua. Ahotsetan entzun dut lehen aldiz, duoan abestuz. Mal de ojo-ren kantua bertsioan, Ramirezek melodia originala abesten du, eta Perez ondoan, apurtu berri den maitasun istorioaz ari dira. Erritmo eta melodia ezberdinak batzeak zirrara pizten dit, Ramirez apurketaren ondoan axolagabe azalduko balitz bezala, Perezek paso egiten.

Alaitasunetik eta lasaitasunetik edan du lan honek. Eta emaitza hori da. 20 urteren ostean itzultzen den kantugileak zertarako izango ote du presarik? Etxean grabatu eta etxean landu. Bitxia da, denborak aurrera egin ahala, gero eta gertuago aritu, gero eta urrunago ailegatzen baitzara. “Eta itxaropenak gaur goizean bere buruaz beste egin du bazter baten”. ●



Urte berri on!

✂ IÑIGO SATRUSTEGI 📺 AHOTSA.INFO

Txantreatar batek beti aurkeztuko du bere burua txantreatar gisa. Baina uztailaren 6 heltzen denean, o bai, orduan bai, PTV (Pamplona de Toda la Vida) peto-petoak bihurtzen gara.

PTV on batek uztaila iritsi aurretik egiten ditu jantzi zurien erosketak, txupinazoaren egunean, behintzat, dotore joateko. Normalena da festen bezperan ezin lorik hartzea urduri dagoelako. Baten batek, gainera, ezin dio gogoari eutsi eta 5ean mozkortu egiten da eta damua datorkio gero. Baina PTV on batek nahiago du goiz lotaratu urteko egun berezienerako fresko egoteko.

Goizeko zortzietan goiztiarrenek, eta eguerdira arte, *almuerzikoa* izaten da, hala esaten diogu PTVok hamaiketako-

ri, bakoitza bere kuadrillarekin eta ohiko txoko edota taberna estimatuenean. Eta esaten ez den arren, PTV askok bihotzerrea du magrak tomatearekin jateagatik. PTV kuadrillek eztabaida izaten dute sarri: txupinazoa auzoan ala alde zaharrean ikusi/bizi. Jendetzaren beldurrez, baina giro gosez. Gureak aurtan auzoko tabernako pantailan ikusi zuen. PTV karneteko puntuak galduko genituen ziur aski.

Euri azpian harrapatuko zuen PTV asko hamabietako eztandak aurtan, eta beste askoren planak zapuztu ere bai. Kaleak aurreko urteetan baino hustuago zeuden, iazkoa dut gogoan, birusa oraindik ere bazegoen arren, lepo zegoen alde zaharra. Egunak, hala ere, utzi zituen momentikoak. Giririk ez Na-

SANFERMINEN HASIERA

NOIZ: uztailak 6

NON: Iruñea

barreriako iturritik salto egiten, baina baloiarekin jolasean zebiltzanak, brindiseko ur azpiko aurrekua, aspaldiko lagun itzulera...

Txosnarik ez zegoen aurtan, benebenetako PTVentzako Gaztelu plaza-koak salbu. Topaleku baten falta igarri zen eta kuadrillek tabernaz taberna ibili besterik ez zuten izan, atertu zuen arte behintzat.

PTV hau, hiru urteren ondoren, behintzat, gogobete zen. Ez zen amesten genuen moduan, espektatibak goian genituelako akaso. Baina ederra izan zen Iruñea zuri-gorritz jantzita ikustea. Urtea bitan hasten da Iruñean, urtarri-lean lehenbizikoz, uztailaren 6an bigarrenez. Beraz, urte berri on PTV guztion partez! ●



Hitz gezidunak

BURDINAZKO LOKARRI PERTSO- NAIAREN ABIZENA	ARRAZA NAHASTU	SETA (ALDE- RANTZIZ) ÁTZIZKIA: KANTITATEA	ONARRIZKO EDARI ÁRRANTZA TRESNA	HEMEN DAGOENA ZEZEN ZIKIRATU	JAI OBERRIEN ELIKAGAI	ISEKA, LAIDO SALBAMEN
BIENTZAKO TXIRRINGA LEHIAZ			MEREZIDU- NAK KILOA		S HIRUTAN PERTSO- NAIAREN IZENA	
				HORI ... ETA, HORREGATIK ERASO		
DOZENA-ERDI (ALDERAN- TZIZ)	AIPATURIKO AARTIKULU BERRIKETA	NAHIA, DESIOA		EGON SALTO	BROMOA UR-JAUZI	
SEGURTASUN IDENTIFIKAT- ZALEA DAGO						
	ENERGIA USO AR			GAU BELEA	...DE JANEIRO, BRASILGO HIRIA ÉTENALDI	
KARTA JOKO MIKROBIOAK SUNTSTITU		HAFNIOA NIHAUR	UKATU ADITZAREN INFINITIBOA HEGAZTI MOTA	HUTS MUSKULU- UZKURDURA		TAMAINA HANDIKO SUGEA
					BYTE 40 ERROMA- TAR ERARA	
ÁRRANTZA TRESNA BARAU EGIN		MAITEÑO TONA		UBIDEA		

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1 ETIK 9 RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	4	7		2	3	1	9	
9	2				8	7		
5		8					2	
7					5	2		
		2	6		9	5		1
3					8			
		9			4			2
	6			7	2		1	
	3				6	8	7	

5x5

ZE HARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

1. Salgai baten zati.
2. Kalkulatzeko taula.
3. Nafarroako udalerria.
4. Aldapak.
5. Jakina.

EBAZPENAK

1. LAGIN
2. ABAKO
3. GARES
4. IKAIA
5. NOSKI

7	8	6	1	5	6	4	2	3	7
1	7	3	7	2	9	1	4	8	6
3	5	5	3	8	6	4	3	5	2
6	9	6	2	1	7	8	4	7	9
4	8	2	6	3	9	5	7	1	3
7	9	1	4	8	5	2	3	6	4
5	1	8	7	9	6	4	2	3	5
6	2	3	1	4	8	7	9	5	2
8	4	7	5	2	3	1	9	6	4

V	A	L	V	N	V	K	U	T	U	V	R	V	B
O	X	T	I	T	E	V	M	E	V	R	S		
B		U	T	A	T	K	E	N	F	E	S	D	E
	O	R					U	H		S	U	M	
O	I	R								E		V	D
I	Z	V	I							D	I	S	
N	V	Z	I							S	E	I	
R	B		O	I						V	V		
V	A		D	E	I	K	U	T	V	I	H	E	L
K	V	N	I	D		M	E	D	N	V	L		
S	S	S	V	I	R	V	M	V	L	N	V	S	
E	E	H	U	V								K	

Eli Gallego Moreiro

ELIKATZEN IKASI EGITEN
DELAKO



AMA ARRAROTIK HARAGO

Amonak erdi eroa dela esaten dio Eliri, baita negozioetarako desastre hutsa dela ere. Zenbakiak zorrotz eta lankideen curriculumak luparekin begiratu ordez, beraien artean kimikarik ote dagoen begiratzen baitu. Osasungintzan eta elikaduran jardungo zuela argi zuen. Pertsona oro ezberdina dela kontutan harturik, dieta orokor eta bakar egokirik ez dagoela argi utziz. Amatasunak ikasketa bete-betean harrapatu zuen, eta tarteka, ama arraro bezala ere agertu izan da haurren lagunen aurrean, atun ogitartekoa eskaintzeagatik, Nocilla bokataren ordez. “Xealebrea bai, baina dena jaten zuten”, dio harro-harro.

“Osasuna gorputz forma askotan dago, ez gorputz zehatz batean”

Ametsak betetzeko jaio da Eli Gallego Moreiro. Horretarako inoiz ez dela berandu frogatuz sortu zuen Elikaeskola Hondarribian, orain dela urte eta erdi pasa. “Zerbait egin nahi badut, lortu arte lan egingen dut”, esan digu. Osasun publikoan nutrizionisten beharra azpimarratzen du, pertsona ororen osasuna zinez landua izan dadin. Dietak norberaren elikadura ohiturak biltzen dituelako, ez delako argaltzeko egiten den zerbait. “Zuk zure dieta duzu eta nik nirea”, diosku. Gorputz osasuntsuen defentsan jarduten du, estereotipoak baztertuz.

 **AITZIBER ZAPIRAIN ETXANIZ**  **IRANTZU PASTOR**

Zein da gorren aldarrikapen nagusia?

Asko daude. Kontua da gizartea ez dela oraindik guregana egokitu. Gure “desgaitasuna”, nolabait esatearren, hizkuntza propioa duen desgaitasun bakarra da; zeinu hizkuntza, hori dugu ezaugarri. Hartara, guk ez dugu geurea desgaitasuntzat hartzen. Ikuspuntu soziolinguistikotik ikusten dugu kontua, gutxiengo soziolinguistikoa garela uste dugu. Ez dugu inolako arazorik gure artean komunikatzeko; gizartearekin komunikatzean agertzen zaizkigu oztupoak, gizarteak oraindik ez baitaki gor izateak zer dakarren. Beraz, gure aldarrikapen nagusia da errespetu gaitzatela, errespetu daitezela gure hizkuntza, gure kultura eta gure nortasuna. Zeinu hizkuntzaren interpreteak egon daitezela, eta azpitu-lazioa, eta maskara gardenak...

“Gizarteak oraindik ez daki gor izateak zer dakarren”, diozu. Zer dakar?

Askotan, gizarteak uste du gor bat entzuten ez duen norbait dela, besterik gabe. Eta ez da hala. Horretan oker dabil gizartea. Gure oztupo nagusia komunikazio eta informazio falta da. Berdin dio entzumen zantzuak izateak, kokleako inplantea izateak, audifonoa edukitzeak edo ahoz ondo hitz egin ahal izateak... Gor batek komunikazio eta informazio falta du.

Orduan, funtsean, diskriminazio soziolinguistikoa jasaten duen komunitatea da zuena?

Bai. Orain kezkatuta gauzkan adibide bat heziketa da. Haur gor askori ez zaie zeinu hizkuntza irakasten. Gizarteak uste baitu inplantea edo audifonoa ezartzea, ahoz hitz egiten



“Elikadurak ez du soilik gorputzean modu fisikoan eragiten, psikologikoki ere asko eragiten du”.

irakastea... nahikoa izango dela, eta hori huts handia da.

Zergatik?

Pertsona gorra betiko direlako gor. Hori da abiapuntua, eta argi geratu behar du hasieratik. Baliteke gor batek ahoz hitz egiteko ahalmena izatea, edo zerbait entzun ahal izatea, baina ez “gizarte entzuleak” bezala. Horregatik esan dut komunikazio eta informazioa falta daudela, lehen minututik. Baina guk badugu hizkuntza natural bat. Jaiotzatik irakatsiz gero, informazioa eskuratzeko aukera dugu.

Eta zergatik ez da irakasten?

Haur gor gehienak entzule familitan jaiotzen dira. Haiek ez dutenez komunitate hau ezagutzen, shock une horretan, lehenbizi, medikuarengana eramaten dute haurra, irtenbide baten bila, eta eskaintzen zaien irtenbidea kokleako inplantea da, edo audifonoa. Ez zaio arazoari ikuspuntu soziolinguistikotik hel-tzen, ikuspuntu medikotik baizik.

Fisiologikotik, nolabait esateko?

Bai, hala da. Eta guk eskatzen dugu bi ikuspuntuetatik hel dakiola. Inplantea baliabidea da eta aurrera egiten lagundu dezake, baina zeinu hizkuntzak ere egon behar du.

Nolanahi den ere, gizartearen gehiengoa analfabetoa da zeinu hizkuntzan. Eta zuek gutxiengoa zarete, ez dakit noraino txikia...

Gizartearen %2,3 inguruk du entzumen desgaitasuna, eta horren barruan gutxiengoa da zeinu hizkuntza dakiena. Euskal Gorra da gorra ordezkatzen duen erakunde bakarra, eta kolektibo guztiei ematen diegu arreta, ez zeinu hizkuntza erabiltzen dutenei bakarrik. Entzumena galduz doazen adinekoak, istripu batengatik egun batetik bestera entzumena galtzen dutenak... Egokitu gaitezke, eta denentzako komunikazio estrategia bilatu. Euskal Gorrakek ez du zeinu hizkuntza exijitzen. Komunikazio bideak exijitzen ditu, informazioa eskuratu ahal izatea. Eta hori modu batean baino gehiagotan lor daiteke.

Zuk unibertsitatean ikasi duzu, eta beste gor askok ere bai. Hala ere, hezkuntza sistemaren gabeziak salatzen dituzue.

Hezkuntza sistema entzumen normaltasunerako prestatuta dago. Profesional askok, eta familek, pentsatzen dute kokleako inplante batek arazoa konponduko duela; guk, berriz, hezkuntza elebidunaren alde egiten dugu. Hau da, garrantzitsua da, jakina, irakurtzen eta hitz egiten ikastea, baina haur gor txi-

kientzat funtsezkoa da, halaber, zeinu hizkuntzaz komunikatzea, hori baitute hizkuntza naturala. Desgaitasuna duten pertsonen buruzko NBEn hitzarmenak dio haur gorrek eskubidea dutela zeinu hizkuntza ikasteko. Espainiako Estatuak hitzarmen hori sinatu du, baina ez da gauzatzen; arau horiek askoz garapen handiagoa behar dute. Familien lehen-tasuna, ordea, beren haurrak entzule bihurtzea da.

Gor batek ezin du irakurri entzuten duen baten erritmo berean.

Zergatik?

Entzuteko gaitasunarekin jaiotzen direnek etengabe jasotzen dute informazioa, eta informazio hori, nolabait esatearren, doakoa dute, ez dute haren bila joan behar. Gor batek ez du hori; gor gehienak entzule familitan jaiotzen dira, eta familiak partekatzen duenaren zati handiena galtzen dute. Azken batean, irakurtzeko edo ikasteko, denbora luzeagoa behar dugu, etengabe galtzen ari garen informazio hori osatzeko. Ez gara motelagoak edo ahalmen urriagokoak; kontua da ez zaigula informazioa iristen gure hizkuntza naturalean. Mundu guztiak zeinu hizkuntza jakinez gero, nik une oro jasoko nuke informazioa, eta besteen abiadura berean egingo nuke aurrera. ●

Zaborra izerditan eta aparretan

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

A ze beroa, e? Eta oraindik gera-tuko da honi “eguraldi ona” deitzen dion baten bat. Kalera ateratzen zara eta airea hain dago muskulatuta, kickboxinga praktikatzen duela dinbi-danba zure Kantauriko gorputz atal guztien kontra. Jasanezina da.

Baina honetan ere, beste gauza guztietan bezala, badira kontsolatzeko arrazoiak bilatzen abilak direnak. “Udan gaude, a ze nobedadea” edo antzeko zerbait erantzuten dio beti-beti-beti norbaitek sareetan anomalia termiko-klimatikoez hizketan hasten den meteorologoari –baita udan egon gabe ere, zeren aurtengo udaberrian horrelakoak ikusita daude denetik ikusi zutela uste zuten bi begi hauek–.

“*Manca finezza*”, esango luke horrelako erromeskerien aurrean Giulio Andreotti demokristau italiarrak, Espainiako demokrazia (tuju-tuju, ui, a ze eztula bat-batean) jaioberriari buruz galdetu ziotenean bezala. Finezia faltatzea problema inportantea baita, batez ere pilatzen hasiak diren arazoei darien usaina bilakatzen denean mando bat bere Domingo Kanpaina eta guzti lurre-ra botatzeko modukoa.

Kontsolamendu finen bat nahi duenak, beraz, begira dezala Italiara egunotan “han okerrago daude gu baino” esateko edo, behin hasita, gure oasietan gehiago estilatzten den “hemen hobe-xago gaude han baino” bat esanda, eta zenbait abaniko kolpe garbosorekin, lasaiago gelditzeko. Izan ere, Italian eta konkretuki Erroman, bero kulturista honekin oso gaizki ezkontzen den zer-bait pilatzen ari zaie kaleetan: zaborra.

Imajinatu zer izan behar duen zure gorputzari egun hauetan ezagutu dizkio-zun perfume berriak konbinatzea jaso gabeko hondakin mendixkek eguzki gal-datan izerditzen duten fragantziarekin. Sudurreko pituitariak ere opor batzuk



eskatu behar ditu horren ondoren.

Zabor-meten artean pantailako no-tiziei begira nabigatzen duten erromatarrek gobernu-krisi potente baten albisteak irakurtzen dituzte. Bost Izarren Mugimenduko (M5S) kideek pasa den asteburuan bideo-dei bidez izan duten bilera baten albistea daukat aurrean eta, zer nahi duzue esatea, italiarrei buruz dauzkagun klixee guztiak greba egiteko moduan daude benetako politikari italiarrek egiten dieten konpetentziaren aurka: “Traidoreak, aurpegian ttu egingo dizuegu” oihukatu du batek, beste bi hondartzatik konektatu dira, Giuseppe Contek kamera eta mikrofonoa itzali ditu... dena nahiko katastrofiko-a, baina ez oso serioa.

Eta hara non, Italiako Gobernu-a antzarak ferratzera bidal dezakeen egoera ulertu nahian nenbilela, “errauste-gi” hitza ikusten hasten naizen. Aber,

aber, zer da hori: ba antza denez, Mario Draghiren gobernuak inflazioaren aurkako neurrien dekretu batean tolestuta sartu nahi izan duela hiriburuan erraustegi bat egiteko baimena. Alegia, zaborrak molestatzten hasten direnean kapitalismo errealki existenteak aurkitzen duen soluzio magikoaren alde egin dutela han ere. Baina M5S –edo haren parte bat behintzat– kontra jarri. Bue-no, eta ekologista guztiak klaro, baina zertarako egingo diezu kasu mundua sauna erraldoi bat bihurtzeko arriskuez duela ez-dakit-zenbat urtetik hizketan ari ziren hippy horiei?

Total, labur esateko, saltsa ederra daukatela Italian eta hemen hobeto gaudela. Beroa baldin badaukazu, sartu uretan freskatzera eta listo. Kasualitatez bainua hartzeko Arkaitzerreka aukeratzten baduzu, gure hondakinen kudeaketa aparretan dagoela ikusiko duzu. ●

GURE HEROIAK

Elkanoren eta Euskal Herriko kolonialisten
historia bat

18€

+ 5€

bidalketa gastuak.

40 €-tik gorako
erosketetan,
bidalketa doan.

BIZUM bidez
ere ordaindu
daiteke.

azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45

Ez zu eta ez ni ez gara kolonialista, inbaditzaile, konkistatzaile, ezta esklabista ere. Inork ez ditu bere egiten euskal herritar askok (ere) mende luzez egindako astakeria horiek. Ordukoaz guk ez dugu ardurarik. Baina konkistatzailea *esploratzaile*, kolonizatzailea *humanista*, eta esklabista *enpresa-gizon* bilakatuta, iraganean gertatutakoa hemen eta orain ospatzen eta zuritzen dugunean, orduan bai, ardura gurea da berdintasunean eta justizian oinarritutako etorkizuna eraiki nahi badugu.

 **ARGIA LIBURUAK**

Babestu euskal kazetaritza independentea

Prezio
finkorik gabe.

Ordaindu
nahi duzuna.

Egin ARGIAkoa

www.argia.eus/eginargiakoa